

**EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA  
(DONOSTIAKO ATALA)**

**ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA GRADUA**

*Gradu-Amaierako Lana*

**“Udal Kirol Zerbitzuen Hobekuntza Proposamena:  
Azkoitiko Igerilekuaren Kasua”**

**Ikaslea: Unai Amenabar Larrañaga**

**Irakaslea: Eduardo Malagón Zaldua**

**2018-2019 ikasturtea**

## AURKIBIDEA

1	Sarrera.....	4
2	Helburuak/Methodologia.....	5
3	Igeriketa osasunean .....	7
4	Testuingurua .....	9
4.1	Azkoitiko populazioa .....	11
4.2	Azkoitia eta kirola .....	14
4.2.1	Kirol klubak .....	14
4.2.2	Instalazioak .....	15
4.2.3	Inbertsioak.....	16
4.3	Azkoitiko igeriketa .....	19
4.3.1	Igerilekuaren antolaketa .....	19
4.3.2	Irisgarritasuna.....	21
4.3.3	Txapelketak egiteko gutxieneko neurriak eta ekarriko dituen onurak ....	24
5	Eragileak .....	27
5.1	Instalakuntza Duinak Orain (IDO) plataforma .....	28
5.2	Zubiaurre I.E.....	30
5.3	Master taldea.....	36
5.4	Masquatro.....	38
5.5	Triatloi taldea .....	41
5.6	Azkoitiko Udala .....	43
5.7	Azpeitiako Kirol Patronatua eta Kirol Zinegotzia .....	44
5.8	Elgoibarreko Udal Kirol Patronatua .....	45
6	Diagnostikoa.....	47
7	Proposamenak.....	49
7.1	Foru Aldundiaren diru laguntzak .....	49
7.2	Lehen proposamena: Gaur egungo kiroldegian beste igerileku baten sorrera... .....	50
7.3	Bigarren proposamena: Azpeitiako kiroldegiarekin elkartuz, Bi herrietako erabilera librea kiroldegietan, Azkoitia-Azpeitiako kiroldegien patronatua sortuz ...	53
7.4	Hirugarren proposamena: Gipuzkoako kiroldegi guztietako erabilera librea Gipuzkoako Kiroldegien Patronatua sortuz .....	54
7.5	Laugarren proposamena: Kiroldegi baten sorrera Loiolan.....	55
8	Ondorioak.....	59

9	Bibliografia .....	61
10	Eranskina.....	63

## 1 Sarrera

26 urte atzera joan behar dira Zubiaurre kiroldegiko ateak ireki ziren unera iritsi arte, eta urteak joan urteak etorri, momentu oroko beharretara ez dela egokitu garbi ikusten da, ezen ez bai ginake egongo gaur egun gauden egoera honetan. 26 urteotan, hainbat aldaketa eta egokitze egin dira kiroldegiko gune ezberdinetan, baina igeriketak eduki duen erabiltzaile gorakada nabarmena ikusita, ez da suertatu bertan aldaketarik izatea.

Azkoitiko herriaren populazioaren zahartzeak, igeriketarako gogoia piztu duela ere esan beharra dago, baita gizarte kontzientziaren aldaketa dela medio, txikitatik haurrei igeriketean erakustea asko hazi da, non Azkoitian dauden bi ikastetxeetako agendetan sartu den igeriketa orduak izatea hurren artean. Honez gain, dibertsitate funtzionala dutenen artean, jendarte integraziorako eta garapen psikomotorra bermatzeko instrumentu onuragarria bilakatu da igeriketa.

Hau guztia esanda, igerilekuaren irekieratik gaur egunera bitartean egin diren aldaketei erreparatuz, ez dira nahikoak izan instalakuntza duin batzuk bermatu ahal izateko, eta egoera honen aurrean, herritarrok erabakiak hartzen joan gara, hala kontuan edukiz zein jendetza egongo den igerilekuan, bertara ez gerturatzeko erabakia hartuz, nola inguruko herrietako igerilekuetara joatea, bertan baldintza hobekak baitaude. Beraz, Azkoitian, esan daiteke igeriketa dela kirol bakarra, orain dela 26 urte baina baldintza okerragoetan aurkitzen dena.

Eta hauxe bera izan da Gradu Amaierako Lanaren gaia aukeratzera eraman nauen motibazioa, Azkoitiko igerilekuaren egoera tamalgarria argitzeko eta objetiboki aztertze asmoz, hurrengo urteetan soluzio batetara iristeko asmoz, dagoen arazoa argitaratzea, kausak aztertuz eta estudio sakon bat eginez, hasierako pausoetan laguntzeko asmoa izatea, kiroldegiko erabiltzaile nahiz igerilari naizen aldetik.

Urteen joan etorrien poderioz, kontzientzia hartzen joan naizen moduan, nire herrian dagoen arazoa ikusten joateko parada izan dut, arazoa geroz eta handiagoa bilakatzen joan den heinean, garbiago geratuz zerbait egin beharra dagoela. Gauzak horrela, GRAL hau aprobetxatzea erabaki dut, nire herrian dagoen benetako egoera islatzeko asmoz, eta honekin, hobekuntza proposamen batzuk emateko erabakiarekin. Beraz, hauxe da hurrengo orrialdeetan sakonduko dudana: **Udal Kirol Zerbitzuen hobekuntza proposamena: Azkoitiko Igerilekuaren kasua.**

Hau esanda, lan honek hartuko duen egitura ondorengoa izango da. Lehenik eta behin, helburu nahiz erabilitako metodologiaren ondoren, igeriketak osasunean duen garrantzia azpimarratzea izango da. Ondoren, testuinguru batekin jarraituz, Azkoitiko herriaren populazioa, kirol klubak, egin diren inbertsioak... Azpimarratzea izango da helburu. Hau

eta gero, igerileku batek beharko lituzkeen gutxieneko neurriak, irisgarritasuna nahiz gaur egun igerilekuak duen antolaketa ikusiko da.

Ondorengo pausoa, Azkoitiko herrian igerilekuari eragiten dieten eragile guztiak aztertzea izango da, Zubiaurre Igeriketa Elkartetik hasiz, igeriketa master taldea, Masquatro enpresa pribatuak eskaintzen dituen saioak, triatloi taldea... baita Azpeitiako eta Elgoibarreko kirol patronatuekin izandako hartu emanak ere aipatuko dira. Honetaz gain, Instalakuntza Duinak Orain (IDO) plataformaren nondik norakoak ere agertuko dira, 2017 urtean sorturiko plataforma izanik, igerileku duin batzuen alde borrokan hasi zirelarik.

Aurretik aipaturiko guztia amaitutzat emango litzateke hori guztia bildu eta gero, eta honekin, lanaren muinera heltzea ahalbidetuko luke. Bertan, aurretik azterturiko guztiarekin diagnostikora iristeko parada izango da, guztia aztertuz, igerilekuaren gabeziak nahiz beharrak zein diren agertuko baitira. Horrela, honekin, azken puntura heltzeko parada emango luke, eta bertan lorturiko emaitzari lotuaz, 4 proposamen ezberdin planteatzeko aukera egongo da, honekin, lan honek izango lituzkeen puntu nagusiak osotasunez beteaz, ondorioekin amaituz.

## 2 Helburuak/Metodologia

Gaur egun kirola geroz eta indar gehiago hartzen ari da gure egunerokotasunean eta gure gizartean. Hori dela eta, jendea geroz eta gehiago ari da kirolak ekartzen dituen onurei begira, eta herri arteko bidegorri zein errepideak kirolariz betetzen ari direla ikusten den heinean, ez da atzean geratzen kiroldegiek hartzen duten itxura betea ere.

Irudia 1: Azkoitiko igerilekua



Iturria: Masquatro web-orria

Azkoitiarra izanez gero, eta kiroldegi inguruan ibiliz gero, begi bistakoa da igerilekuaren arazoak zein magnitude hartzen duen herri honetan gaur egun. Hau horrela izanik, Azkoitiko igerilekuak ez ditu behar bezalako baldintzak betetzen, ez igerian egin nahi duen

erabiltzaile arruntarentzat (gazte, heldu, irisgarritasun arazoak dituen jendea...), ez igerilekua kudeatzen duen enpresa pribatuak (Masquatro) eskaintzen dituen aktibitateentzat eta ezta igeri taldean (Zubiaurre IE) zein triatlói taldean (Azkoitri Triatlói Taldea) lehiatu nahi duen jendearentzat ere.

Gauzak horrela izanik, eta Kiroldagiko zein igerilekuko ohiko erabiltzaile naizen aldetik, arazo hau aspaldi danik hauteman dut, bai nik, eta baita nire taldekide nahiz gainerako erabiltzaileek ere, baina sekula ez gara eta dira (Udal taldeak, nahiz beste eragileak) mugitu arazo honi aurre egiteko. Hau horrela, eta aurretik esan bezala, Gradu-Amaierako Lan honen helburuetako bat, igerilekuak dituen gabeziak hautematea izango da, arazoak duen garrantzia azpimarratzeko asmoz, proposamen ezberdinekin amaituz. (Proposamen hauek, nahiko azaletik izango dira zoritxarrez, eta ondorioetan agertzen den bezala, hainbat gabezia izan dira hau gauzatzeko orduan, askoz gehiago sakontzea bait zegoen, baina gai horiek beste proiektu handi bat egiteko haina edukiko lukete).

Horretarako, metodologia ezberdinez hornitzea izan da hasierako pausoa, lan hau ahalik eta sakonena izateko asmoz. Ondorengo taulan adierazita agertzen dira zein zatitan zein metodologia erabili den, garbiago ikusteko asmoz:

Taula 1: Erabilitako metodologia mota ezberdinak	
ATALA	METODOLOGIA
Igeriketa osasunean	Bilaketa dokumentala
Populazioa, kirol klubak, inbertsioak...	Bilaketa dokumentala
Igerilekuaren antolaketa	Behaketa arrunta nahiz Bilaketa dokumentala
Igerileku baten gutxieneko neurriak	Bilaketa dokumentala
Irisgarritasuna	Bilaketa dokumentala
Eragileak	Elkarrizketak
Diagnostikoa	Behaketa arrunta
Proposamenak	Behaketa arrunta eta Bilaketa dokumentala

Iturria: Ikasleak egina

Laburbilduz, lan hau aurrera eramateko metodologia ezberdinak erabili direla azaltzen da, bilaketa dokumental batetik hasiz, behaketa arrunta ere erabiliz igerilekuaren antolaketari dagokionez, edota elkarrizketa bidez jarraituz eragileak aztertu diren momentuan. Kasu honetan, elkarrizketen atala argiago ikusteko asmoz, elkarrizketaturiko eragile edo talde ezberdinak, elkarrizketatuak talde horretan duen kargua eta elkarrizketatua nor izan den azaltzen da.

Taula 2: Eragileak, elkarrizketatuak eta duten kargua		
ERAGILEA	ELKARRIZKETATUA	KARGUA
Instalakuntza Duinak Orain! (IDO)	Xabier Barkero	Sortzaile eta taldekide
Zubiaurre I.E	Pablo Dominguez	Zuzendaria
	Roman Artola	Diruzaina
Zubiaurre I.E MASTER taldea	Xabier Uzin	Taldekidea
Masquatro	Web gunea	
Azkoitri Triatloi Taldea	Aitor Tertzio	Taldekidea
Azkoitiako udaletxea	Javier Zubizarreta	Alkatea
	Ana Azkoitia	Alkate ordea
Azpeitiako Kirol Patronatua	Ina Sagarzazu	Kirol Patronatuko Zuzendaria
	Estitxu Elduaien	Kiroletako Zinegotzia
Elgoibarko Udal Kirol Patronatuko Zuzendaria	Ramon Mujika	Kirol Patronatuko Zuzendaria

Iturria: Ikasleak egina

Amaitzeko, diagnostikoa, aurretik aipaturiko guztiaren sumario bat izango da, non arazo nagusia detektatzeko aukera emango duen, honela proposamenen atalean behaketa arruntez nahiz bilaketa dokumentalaren bitartez soluzio batzuk emateko asmoz.

### 3 Igeriketa osasunean

Lan honekin aurrera joan ahal izateko, ezinbestekoa da igeriketak osasunean dituen hainbat onura aztertzea, guztiz garrantzitsua baita ohartaraztea osasun on bat eduki-teak duen garrantziaz gure bizimoduan.

Gainera, sarri entzuten da hainbat direla igeriketak gizakion osasunari ekartzen dizkion onurak, eta guztiz interesgarria izango litzateke herritarron osasun ohiturak hobetzeko asmoz instalakuntza duin batzuek izateko proposamenak garatzea.

Garbi dago eta gainera geroz eta sarriago entzuten da gutxienez astean bi aldiz egin behar dela 30 minutuko ariketa fisiko aerobikoa, honek tentsio arteriala, azukrea edota kolesterola kontrolatzen laguntzen baitu, horrela gaixotasun kardiobaskularrak jaitziz (Kaplan, 2017). Ez hori bakarrik, XXI. Mendeko erronka handienetako den obesitatea kontrolatzea eta geroz eta jende gehiago hortik ateratzea ere baliagarria egiten du kirol honek.

Aurretik aipaturikoak, zentzu zabalean edozein kirolek duela esan daiteke, baita pasiera bat emateak ere. Baina baditu igeriketak beste hainbat ezaugarri, beste kirolek ez dituztenak. Lehenik eta behin, haur jaio berrienetatik hasita, azken pertsona helduk praktikatzen dezaken kirola dela garbi dago, hau oso kirol gutxitan ikusten delarik.

Hezurren gaixotasunak nahiz muskularrak dira mundu honetan min kroniko, ezgaitasun eta bizi kalitatea murrizten duten kausa nagusiak eta ondorioz, igeriketa bezalako baliabideak erabiltzeko lehen arrazoietakoa bat bilakatu dira. Hau horrela izanik, gizartean hainbat entsegu kliniko eman dira hau egiaztatu nahian, eta baita egiaztatu ere. Uretan egiten diren ariketak mina gutxitzen dutela egiaztatu dute, baita psikologikoki mesedegarriak direla eta bizi kalitatea hobetzen laguntzen dutela erakutsi dute (Barker et al, 2014).

Aurretik aipaturiko hezur gaixotasun nahiz muskular hauen barruan, larrialdi zerbitzuetara joaten direnen kasua nagusia, lunbalgia dela dio egin den azterketa batek. Hainbat ebidentzia zientifiko argitaratu dira igeriketarako patologia honen gainean duen onuraren inguruan, eta hori gutxi izango balitz, haurdunaldiko min lunbarrarentzat ere lagungarria dela igeriketa ikusi da (Waller, 2009).

Zoritxarrez, Azkoitiako igerilekuak dituen leku arazoak direla medio, haurdun dauden emakumeen segurtasuna ez dago bermatuta igerilekuan, eta honetaz gain, eta are eta zoritxar handiagoko arazoa agian, haurdunaldiko igeri eskola bat sortzeko eskaria egon arren, ez da klaserik eskaintzen, leku falta eta instalakuntzak ez direlako egokiak.

Honetaz aparte, astean 3 aldiz 45 bat minutu igeriketa praktikatu izan geroz, Iktusa eduki dutenen artean mugikortasunaren hobetzea ekarri dietela frogatua dago baita ere (Tripp, 2013)

Hau gutxi izango balitz, zientifikoki dago frogaturik bular minbizia eduki dutenen artean, honek ekartzen duen indar eta nekea, uretako hainbat programen bidez hobetzen dela. Datu bezala, jakinik emakumeen artean zortzitik batek garatzen duela bular minbizia, garbi dago igeriketa guztiz garrantzitsua izango litzatekela emakumeentzat (Cantero-Villanueva, 2013).

Nahiz eta hainbat eritasun kontuan hartu, badago Azkoitiko herrian bereziki kezkatzen duen gaixotasun bat ere, Parkinson delakoa. The Michael J. Fox Foundation for Parkinson's Research-ek *finantziatutako "The Parkinson's Progression Markers Initiative"*-en barruko ikerkuntzan dago murgilduta Biodonostiako inbestigazio proiektu bat. Bertan "dardarina" izeneko proteina bat aurkitu da, euskal mutazioa izenarekin ezagutzen dena zehazki. Proteina hau gorputzean edukitzeak, 80 urterekin gaixotasun hau izateko probabilitatea %83ra igotzen da. Azkoitia eta Azpeitian eginiko ikerlan batek erakutsi duenaren arabera, bi herri hauen populazioaren %1,8ak mutazio hau duela esaten du. Zifra handiak dira gure ingurua afektatzen duena eta tratamendu ez farmalogikoa indartzeak bere biziko garrantzia duela argi dago, eta horretan, igeriketarako hauen oreka, malgutasuna eta indarra irmotzen laguntzen duela frogatua dago (Fleisher J. et al, 2017).



Afekzio hauekin amaitzen joateko asmoz, eta aurretik aipaturiko gehienak helduen artean ikusten badira ere, bada beste gaixotasun bat gazteen artean oso ezaguna dena: asma. Afekzio honek 18 urtez azpiko gazteengan izugarri kaltetzen du eta igeriketa entrenamenduak egiteak izugarritzko laguntza ematen die gaztetxoei, biriken gaitasuna handituz (Beggs S et al, 2013)

Ez legoke gaizki atal hau amaitu baino lehen 2017ko azaroaren 3an Berria egunkarian argitaratu zen artikulu bateko zati bat aipatzea. Bertan burmuin paralisia duten bi euskal gazteri elkarrizketa bat egin zieten, eta hauxe esan zuten besteak beste: *“Igeriketak bizi kalitatea hobetu digu. Guk zailtasun batzuk ditugu, baina horiek gainditzen ikasi dugu. Gainera, ikasketetan kontzentratzeko lagungarria izan da, denbora kudeatzen ikasi dugulako”* dio batek eta, *“Bizimodu arrunta egiten lagundu digu. Lehen, gauza batzuk egitea kostatzen zitzaigun. Orain, egin dugun lanari esker, eta gure inguruko laguntzari esker, bizimodu autonomoa egitea lortu dugu”* aipatzen du besteak.

Igeriketak beraientzat zer esan nahi duen galdetzen dietenean honakoa erantzuten dute: *“Gure bizitzarako ezinbestekoa bilakatu den elementu bat...”*. *“Txikitatik gure bizitza hobetzeko erabili dugun baliabidea izan da; Eta bizitza nolakoa den erakutsi digu. Kirolaren balioak bizitzarako baliagarriak dira”*. Beraz, ez da ebidentzia hoberik, kasu erreal baten adibide bat baino (Berria egunkaria, 2017).

Amaitzeko, kirolean jasaten diren milaka lesio ere igerilekuan errekeratzen eta errehabilitatzen direla garbi dago, baita bizi errealean sortzen diren lesioak ere, hala nola, belauneko hausturak, besoetako hausturak...

Hau guztia esan eta gero, garbi geratzen da igeriketak osasunean zer nolako indar eta onurak dituen. Pisu handiena ordea, edozein adinetako pertsonak praktikatu dezaketela da. Hau esanda, guztiz interesgarria da edozein herritan, eta kasu honetan, Azkoitian, igerileku duin eta herri osoarentzat izatea, edozein pertsonak erabili behar izango baititu lehenago edo beranduago instalakuntza hauek, eta modu on batean edukitzeak guztizko garrantzia duela ikusten da.

#### 4 Testuingurua

Sarrera, helburuak eta metodologia nahiz igeriketak osasunean duen garrantziarekin amaitu ondoren, orain testuingurua finkatzeko ordua da, bertan, Azkoitiko populazioaren ikerketa txiki bat eginuz eta zer nolako forma hartuko duen ikusiz, Azkoitian kirolak duen garrantziarekin jarraituz. Ondoren, lan honen helburuetan gehiago zentratzeko as-

moz, igerilekuak gaur egun duen antolaketa aztertzea komenigarria litzateke, irisgarritasunarekin jarraituz, eta ondoren proposamenetan landuko diren igerilekuak zein neurri eduki beharko lituzkeen adieraziko da, honek ekarriko dituen onurei erreparatuz ere.

Lehenik eta behin, kiroldegiko erabiltzaileengan begirada jartzea garrantzitsua da, hau-etako batzuk igerilekuaren erabilera handitzen baitute. Ondoren atxikitu diren taula hauek, urteak joan urteak etorri antzekoak direla esan beharra dago, urtero izaten baita irailan erabiltzaileen “boom-a”, ikastaroak hasten direnean martxan, nahiz eta horren ondoren beherakada bat egoten den. Gainera, eskoletatik ere haurrak joaten dira igeri egitera goizez, baita DBH eta batxilergoko ikasleak ere, Gorputz Hezkuntza ikasgai.

Hasierako efektu hau pasatu ostean, pixkanaka-pixkanaka erabiltzaileen beheraka etortzen da, ezin baita egoera horietan kirola ondo egin. Horrela, hainbat jende desagertzen da bai ikastaroetatik eta bai egun normaletan, “burugogor” batzuk jarraitzen dutelarik soilik. Hainbat jenderentzat kirola egitera joatea zaila bada, egoera honetan dagoen igerileku batera nola joango dira ba? Badakite eta ezin izango dutela igeri lasai egin.

Bestalde, herrian sekulako zarata egoten da igerilekuko erabiltzaileen artean, Azpeitiako kiroldegira joango direla igeri egitera adibidez, edota beste batzuk, Azpeitiara gustura joango zirela esanez. Gaur egun, Azkoitian erroldaturiko 76 pertsona daude Azpeitiako igerilekuko bazkide direnak, bertara joanez kirola egiteko asmoz. (Kontsortzioa, 2017)

Atxikitu den taula sintesi moduan dago eginik, lanaren amaieran (10. puntua den “eranskina” atalean) aste horietan egunez egun eta goiz nahiz arratsaldean ibili diren erabiltzaileen desglosea eginik baitago.

TAULA 3: Erabiltzaileen datuak astez aste	
ASTEA	ERABILTZAILE KOPURUA ASTEAN
2017/09/18-2017/09/24	1350
2017/09/25-2017/10/01	1750
2017/10/02-2017/10/08	1919
2017/10/09-2017/10/15	1208
2017/10/16-2017/10/22	1891
2017/10/23-2017/10/29	1788
2017/10/30-2017/11/05	1664
2017/11/06-2017/11/12	1839

Iturria: Sorosleak harturiko datuak egunez egun

Grafikoan agertzen den bezala, edozein bi hilabete hartu ziren, eta bertan egoten den sorosleak harturiko datuak dira, egunean zenbat pertsona igarotzen den igerilekutik gor-

deaz. 1.500 eta 2.000 erabiltzaile ibiltzen dira astez aste Azkoitiko igerilekuan, aste egunez goizeko 07.00tatik gaueko 21.00tara eta aste bukaeratan, goizeko 09.00-20.00 (igande arratsaldeak itxita izanik) ordutegian. Bost kaleko igerileku batean sartzeko jende asko ezta?

Bestalde, esan beharra dago Elkarguneak (Azkoitiko kiroldegiak hartzen duen izena da) 3.376 bazkide dituela, eta astez aste 5.000 bat erabiltzaile biltzen direla bertan. Hau esanda, kiroldegira bertaratzen den %35-40 inguruko portzentajea da igerilekura joaten dena (Elkargunea Azkoitia, 2018)

Hau guztia esan eta gero, Azkoitiko populazioari erreparatzea ere ezinbestekoa da.

#### 4.1 Azkoitiko populazioa

Azkoitiko igerilekuen instalakuntza zaharkiturik geratu dela aspalditik jakina den arren, arazo hau are eta larriagoa bilakatu daiteke hurrengo urtetan, demografiari erreparatuz. Bertan, herriko populazioaren zaharkitzea datorrela ikus daiteke, eta honi, biztanleriaren bizi kalitatea hobetu dela nabarmen utziz, aldaketak ekarriko dituela antzeman daiteke.

Eustat-en datuen arabera, EAEk XX. mendearen azken laurdenean izan dituen joerei erreparatuz, mende berriaren lehen hamarkadak aldaketak ekarri dituela ikus daiteke. 2001 urtetik 2010 urteraino, biztanleria gehitu dela ikusten da, jaiotza gehiago izan baitira heriotzak baino, baita migrazioaren hazkundeak lagundurik ere.

Julio Pérezen hitzetan, *“gizateriak ugalketa-iraultza bizi du, eta horrek, historian estreinako aldiz, ugalkortasuna murriztea ahalbideratzen dio (...). Horren arrazoia da jaioberriek beren arbasoek baino bizi askoz ere luzeagoa biziko dutela. Bi egoera berri hauek, hau da, bizi luzea demokratizatzeak eta ondorioz ugalkortasun txikiagoa posible izateak, populazio-piramidean egitura berria izatea dakarte. Aldaketa bortitza da, oraindik amaitu ez dena eta aurreko zibilizazioetan aitzindaririk izan ez duena. Haren ondorio politiko, ekonomiko eta sozialak itzelak dira”* (Diaz, 2010)

Mende berriaren hasierarekin batera gainera, nazioarteko migrazioaren eragina nabaria izan zen, Azkoitiko kasuan, gaur egun dagoen biztanleriaren %8,25a osatzen dutelarik kanpotik etorri direnak.

Hurrengo taulan ikus dezakegun bezala, 2016 urtean, ia mila etorkin ziren Azkoitiko herrian, biztanleria 11. 570 iritsiz. (Eustat, 2016)

Taula 4: Azkoitiako populazioaren bilakaera generoetan banandurik


	2012	2013	2014	2015	2016
<i>Emakumeak</i>	5.700	5.766	5.781	5.809	5.812
<i>Gizonezkoak</i>	5.771	5.737	5.811	5.783	5.758
<b>GUZTIRA</b>	11.471	11.503	11.592	11.592	11.570
<i>Etorkinak</i>			896	962	954

Iturria: Eustat

Sexuaren eta adinaren arabera aztertzen baditugu Azkoitiko herriaren datuak, 20 urtetik beherakoen pisua murriztu dela hautematen da, eta honekin batera, 64 urtetik gorakoen pisua gehitu dela, 20 urtetik 64 urte arte tartean populazioa mantenduz. Honekin, gazte gutxiago datorrela ikusten da, zahartzaroa handituz (Eustat, 2016)

Grafikoan ikusten dugun bezala, aurretik adierazitako hau, hurrengo urteetan nabarmenagoa izatera iritsiko da, horrela, Azkoitiko herriarentzat erronka bat izanik, datorren egoera ikusirik, aldaketak egiten hasteko ordua izanik.

Grafikoa 1: Azkoitiko populazioa 2016 urtean




Iturria: Instituto Nacional de Estadística

Heriotza tasei erreparatuz gero, herriko hildakoen batez bestekoa asko luzatu dela ikus daiteke. Ehun urte atzera joanik, hildakoen batez besteko adina 52,08 urtetan zegoen. Azken datuen arabera, 2016 urtean, 82 urtetan zegoen batez besteko heriotza tasa.

Taula 5: Biztanleria adinaren eta generoaren arabera				
URTEA	SEXUA	ADINA		
		18 urte artekoak	19-65 urte artekoak	66 urtetik gorakoak
2012	Emakumezkoak	1.157	3.367	1.176
	Gizonezkoak	1.198	3.710	863
2013	Emakumezkoak	1.200	3.670	1.189
	Gizonezkoak	1.230	3.347	867
2014		2.453	7.034	2.015
2015	Emakumezkoak	1.165	3.393	1.251
	Gizonezkoak	1.191	3.636	956
2016	Emakumezkoak	1.193	3.371	1.248
	Gizonezkoak	1.195	3.603	960

Iturria: Eustat


Grafikoa 2: Azkoitiko populazioa sexu eta adin tartetan sailkaturik



Iturria: Eustat

Aurretik aipaturiko datu guztiak kontutan hartzen badira, XX. mendetik aurrera biztanleriak gora egin du nabarmen, batzuetan 1980 urte inguruan, gailurra jo zuelarik, nahiz eta hurrengo 20 urteetan, XXI. mendera iritsi arte, beherakada arin bat jasan izan duen. Ondorengo lerroetan atxikitzen dut grafikoa, aurretik aipaturikoa argiago ikus daiteken.

Grafikoa 3: Azkoitiko biztanleriaren bilakaera



Iturria: Instituto Nacional de Estadística

Aurretik aipaturiko guztia ondorioztatuz, Azkoitiko populazioak gorakada argia izan du azken mendearen bueltan. Alde batetik etorkinen hazkuntzak biztanlerian eragina izan duela ikus daiteke, nahiz eta daturik aipagarriena biztanleriaren zahartzea izan den, honek igerilekuan ekarri dezaken erreperkusioa ikusirik. Hau horrela ikusirik, gure gizarteak egoera honetara moldatu behar duela esan besterik ez dago, zenbat eta azkarrago hasiz, hobe (INE, 2016).

Okupazio tasa aspaldi danik izan da gehiegizkoa gure herrian, baina demografiaren aldaketak direla medio, ezin da ukatu honek okerrera bultzatuko duela hurrengo urteetan, aldaketak egin ezean. Populazioaren bizi-kalitatea hobea den heinean, hauek igerilekua gehiago erabiliko dute, horrela, gaur egun dagoen egoera baino askoz ere okerrago batera bultzatuz.

## 4.2 Azkoitia eta kirola

Azkoitiako demografiari amaitutzat emanez, hurrengo atala, Azkoitia eta Kirola izango litzateke. Atal honetan, Azkoitiko herrian dauden kirol klubak aztertuko dira lehenik, ondoren dauden instalakuntzei erreparatuz. Atal honekin amaitzeko, 2012az geroztik Azkoitiak kirol instalakuntza mailan egin dituen inbertsioei erreparatzea izango da helburu, ea zer nolakoak izan diren.

### 4.2.1 Kirol klubak

Azkoitiako Kirol Klubei erreparatzen denean, hainbat diziplina ezberdinetako klubak aurki daitezke. Guztira, gaur egun, 19 dira ofizialak diren klubak. Horietan, atletismoa, areto futbola, edota txirrindularitzako talde bat baino gehiago daude, baita hala nola

xake, bolo edota ehizako taldeak ere. Zein talde dauden garbiago ikusteko asmoz, ondoren taula bat atxikitu da, zein talde dauden adieraziz eta zein den beraien modalitatea sakonduz. (Azkoitia Udala, 2018)

Taula 6: Azkoitiako Kirol Taldeak	
TALDEAK	MODALITATEA
Anaitasuna Futbol Taldea	Futbola
Anaitasuna Kakute Xake Elkartea	Xakea
Anaitasuna Karate Taldea	Karate
Anaitasuna Mendi Bazkuna	Mendizaleak
Anaitasuna Tenis Elkarrea	Tenisa
Azkoitiako Triatloi Taldea	Triatloia
Floreaga Bolo Elkartea	Boloak
Gimnasi Erritmikoa	Gimnasia Erritmikoa
Iraurgi Saski Baloia	Saskibaloia
Jokin Ormaetxea Txirrindulari Taldea	Txirrindularitza
Orion Elkartea	Ehiza
Oteiza Pilota Taldea	Esku pilota
Peña Elorza Txirrindulari Elkartea	Txirrindularitza
Prexkuk Areto Futbol Taldea	Areto Futbola
Prexkuk Areto Futbol Taldea	Areto Futbola
Raka Maraton	Atletismoa
Xeye Atletismo Taldea	Atletismoa
Zubi Aurre Areto Futbol Taldea	Areto Futbola
Zubiaurre Igeri Elkartea	Igeriketa

Iturria: Azkoitiko Udala

#### 4.2.2 Instalazioak

Kirol Klubak aztertu ondoren, herriak kirolarentzako dituen instalazioak aztertuko dira, aurreko taula berbera erabiliz, baina kasu honetan, bere alboan zein instalazio dituen aurkeztuz. (Azkoitia Udala, 2018)

Taula 7: Azkoitiako Kirol Taldeek erabiltzen dituzten instalazioak

TALDEAK	MODALITATEA	INSTALAZIOAK
Anaitasuna Futbol Taldea	Futbola	Zelai naturala, artifiziala, eta beraientzako gimnasio bat
Anaitasuna Xake Elkartea	Xakea	Xakean jokatzeko gelak
Anaitasuna Karate Taldea	Karate	Elkarguneko pista estalia
Anaitasuna Mendi Bazkuna	Mendizaleak	-
Anaitasuna Tenis Elkarrea	Tenisa	3 tenis pista aire librea eta euria egiten duenean frontoia
Azkoitiako Triatloi Taldea	Triatloia	Igerilekua eta Elkargunea
Floreaga Bolo Elkartea	Boloak	Bolera
Gimnasi Erritmikoa	Gimnasia Erritmikoa	Elkarguneko pista estalia
Iraurgi Saski Baloia	Saskibaloia	Elkarguneko pista estalia eta gimnasioa
Jokin Ormaetxea Txirrindulari Taldea	Txirrindularitza	-
Orion Elkartea	Ehiza	-
Oteiza Pilota Taldea	Esku pilota	Gurea pilotalekua eta Oteiza frontoia
Peña Elorza Txirrindulari Elkartea	Txirrindularitza	-
Prexkuk Areto Futbol Taldea	Areto Futbola	Elkarguneko pista estalia
Prexkuk Areto Futbol Taldea	Areto Futbola	Elkarguneko pista estalia
Raka Maraton	Atletismoa	Elkarguneko gela bat eta gimnasioa
Xeye Atletismo Taldea	Atletismoa	Elkarguneko gela bat eta gimnasioa
Zubi Aurre Areto Futbol Taldea	Areto Futbola	Elkarguneko pista estalia
Zubiaurre Igeri Elkartea	Igeriketa	Igerilekua eta gimnasioa

Iturria: Azkoitiko Udala

Hau horrela aztertuz, garbi ikusten da Azkoitiako herriak azpiegitura handiak dituela, 11.000 biztanleko herri bat izaterako orduan. Bestek beste, 2 futbol zelai, dozena bat pilotaleku, 3 tenis pista, Elkarguneko pista estaliak...

Honetaz gain, hainbat dira taldeak Elkarguneko instalakuntzak ere erabiltzen dituztenak, adibidez beste modu bateko entrenamenduak egiteko, gimnasioa, pista estaliak... baina datu bezala, igerilekua da leku bakarra, non bertan hainbat aktibitate egoteaz gain, beste talde guztiak joaten direnak ere, bai errehabilitazioak egitera, baita afizioz ere. Hau horrela izanik, sekulako garrantzia duela uste dut, igerileku on bat edukitzeak herriarentzat.

Hau aztertuz, hurrengo puntuan egin diren inbertsioetan sartuz gero, garbi ikusiko da ez duela behar bezain adina garrantzia hartzen leku honek, eta futbola bezalako beste kirol batek ematen duela izugarritzko diru kantitatea, nahiz eta jende gutxiagok erabiltzen dituen beraien instalakuntzak.

#### 4.2.3 Inbertsioak

Atal honetan, Azkoitiako herrian kirol instalakuntzetan egin diren inbertsioei erreparatu diot, bertan garbi ikusiko delarik igerilekuari eskaini zaion finantzazioa ia nulua izan delarik. (Azkoitia Udala, 2018)



Taula 8: Azkoitiko kirol instalakuntzetan eginiko inbertsioak azken urteetan

URTEA	EGINIKO INBERTSIOA	KOSTUA
2012	Elkarguneko aldagelak	21.998 €
2013	Elkarguneko teilatuaren konponketa	37.996,77 €
	Igerilekuko jasotzailea	12.986,93 €
	Txerloiko argiteria berritzeko laguntza	25.000 €
	Ikastolako frontoiko sarea	6.572,72 €
2014	Txerloiko tenis pista 1	29.997,45 €
	Txikigolf aldeko hesia	7.801,78 €
	San Juan futbol zelaiaren beiratea	27.462 €
	San Juan futbol zelaiko babesak	14.998,57 €
	Igerileku irekiko kantina	56.173,33 €
2015	Futbito eta saskibaloiko kantxa	84.000 €
	Txerloiko itxitura	15.700 €
	San Juan futbol zelaiaren harmailak babestu	27.462 €
	Kukuherriko frontoia	14.998,57 €
	Txerloiko 2 tenis pista	56.173,33 €
2016	Elkarguneko markagailua	12.359 €
	Kanpoko igerilekuko txirrista	9.513,82 €
	Gurea pilotalekuko konponketak	38.554,36 €
	Gurea pilotalekuko barandak	4.900,50 €
	Txerloiko ordezkoen aulki eta aspertsoreak	10.094,49 €
2017	Txerloiko harmailak, lehiatila, estalpea	100.000 €
	San Juan sarea	40.000 €
	Kontzejupearen eraberritzea	10.983,40 €
	Elkargune sarreraren aterpea eta sarbidea	89.733,25 €
	Elkarguneko saskibaloi kantzako ekipamendua	36.441,43 €
	Oteiza frontoien berritze lanak	28.976,75 €
	Elkarguneko gelaren errehabilitazioa	43.807,50 €
	Igerilekuko LED argien igeltseritza	2.000 €
	Igerilekuko LED argiteria berria	25.353,76 €
	Ur bero gehiago izateko berogailuen moldaketa	13.761,11 €
Rokodromoa	33.000 €	

Iturria: Azkoitiko Udala

Lehenik eta behin, igerilekuari erreparatzen dion lehen puntua, 2013 urtean dator, hau, igerilekuko jasotzailea izanik. Honek, soilik 13.000€ ko kostua dauka, eta 5. Klean dago jarririk, kalearen zati bat oztopatzen duelarik, igerian ongi egitea oztopatzen duelarik. Hau, irisgarritasun arazoak dituen jendearentzat dago jarririk, igerilekura sar eta atera daitezten. Baina badaude aulki eramangarriak ere, komenigarriagoak izango zirela bai irisgarritasun arazoak dituen jendearentzat, eta baita kale horretako erabiltzaileentzat ere.


Hurrengo berrikuntza, eta azkena gainera, 2017an egin zuten, eta hau igerilekuko argien aldaketa eta ur berogailuaren moldaketa izan zen, gutxi gora behera 40.000€tan baloratua.

Azken sei urteetako datu hauei erreparatuz, pare bat moldaketa egin direla ikusten da igerilekuaren inguruan, baina dagoen arazoari irtenbidea ematen ez dioten partxeak direla ikusten da, ez baitio dagoen kongestioari irtenbidea ematen.

Taula 9: Gastuen banaketa instalakuntzen arabera	
INSTALAKUNTZA	GASTUA
Futbito-saski-gimnasia-eskalada kantxa	209.607,93 €
Elkargunea	189.469,35 €
Txerloia futbol zelaia	158.596,27 €
San Juan futbol zelaia	101.643,34 €
Frontoiak	98.413,58 €
Tenis pistak	86.170,78 €
Igerilekua	40.340,69 €

Iturria: Azkoitiko Udala

Sakontzeko asmoz, aurretik eginiko segmentazioa, taldeetan elkartu da, horrela garbiago ikusteko asmoz. Hau horrela izanik, 5 urteren buruan, Azkoitiko kirol instalakuntzetan soilik 885.000€ inguru inbertitu dira, horietatik soilik 40.000€ igerilekuari dagokionez. Ez dago konparazio argiagorik Azpeitiako eta Azkoitiko herrien artekoa baino, ezta igerilekuari eta gainerako kirolei eman zaien indarrari dagokionez ere, futbola izanik adibide garbiena.



Iturria: Azkoitiko Udala

Azkenik, atal honekin amaitzeko asmoz, Gipuzkoa mailan 15 herrialde hartu dira kontuan, bertan bizi diren biztanleak aipatuz, eta herri hauetan, azken urteetan egin diren berrikuntzak aipatuz batzuetan, eta besteetan berriz, urte hauetan egin behar dituzten berrikuntzak aipatuz.

Baita zenbat kale dituen igerilekuak, eta igeri nahiz master talderik badagoen eta zenbat pertsonen osaturik dagoen adierazi da. Hau esanda, taulari begiratzea besterik ez da geratzen, Azkoitia zein atzean dagoen ikusteko soilik, dituen igerilari kopurua begiratzuz eta dituen kale kopuruak ikusiaz.

Taula 10: Biztanleria kopurua, kale kopurua, berritze lanak, eta igeri nahiz master taldeko pertsona kopuruak

HERRIAK	BIZTANLERIA KOPURUA	KALE KOPURUA	BERRIKETA LANAK	TALDEKO PERTSONA KOPURUA	
				Igeri taldea	Master taldea
Azkoitia	11.852	5		160	55
Azpeitia	14.666	10		258	30
Bergara	14.743	10		datu falta	datu falta
Tolosa	19.175	10+(5)		300	30
Zarautz	23.117	11		150	50
Hernani	19.712	8		28	15
Markina	4.970	6		90	25
Zumaia	9.840	6		100	40
Eibar	27.380	6+5		130	20
Zumarraga	9.918	4		ez du talderik	40
Elgoibar	11.594	4	6 kale	datu falta	datu falta
Legazpi	8.485	6+5	11 kale	76	11
Oñati	11.348	5	8 kale	145	27
Urretxu	6.805		birgaitzea	ez du talderik	ez du talderik
Arrasate	21.981	6+4 / (8+6)	klimatizazioa	ez du talderik	ez du talderik

Kolore laranja, azken urteetan berrikuntzak egin dituzten igerilekuak

Kolore berdez, urte honetan eta hurrengoetan berrikuntzak egitera doazenak

Parentesi artean estali gabeko igerilekuak

Iturriak: Eustat, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Igeriketa Federazioa

### 4.3 Azkoitiko igeriketa

Azkoitiko kirol klubak nahiz inbertsioak erreparatu ondoren, Azkoitian igeriketak duen pisuaz jardungo da hurrengo zatietan. Bertan, hasiera batean igerilekuak gaur egun duen kaleen antolaketa azalduko da, ondoren, irisgarritasunaren inguruan hitz eginuz, eta txapelketak egiteko zein neurri behar diren gutxienez azalduz, hauek Azkoitian izanik edukiko lukeen oihartzunarekin.

#### 4.3.1 Igerilekuaren antolaketa

Igerilekuaren antolaketari dagokionez, herri eta hiri guztietan bezala, hainbat talde ezberdinek nahiz erabiltzaileek erabiltzen dute. Azkoitiko kasuan, 8 talde (helduen igeriketako taldea, haurren igeriketako taldea, haurtxoen igeriketa, eskolarrak, aquagym, Zubi-

aurre Igeri Elkartea, triatloi taldekoak, erabiltzaileak...) ezberdinek eta erabiltzaileek erabiltzen dute gutxienez instalakuntza hau, 5 kalekoa soilik izanik, sarritan arazoak ekaritzen dituela.

Hau horrela izanik, talde guztien arteko elkarbizitza ahalik eta ondoen ematen saiatzen da, eta nahiz eta erlazio ona izan guztien artean, sarritan leku falta da arazo handiena, igerilekua txiki gelditu dela garbi ikusiz. Horrenbeste talde izanik igerileku txiki batean, ordu kudeaketa ona dagoela eginik ikusten da, baina talde bakoitzak ez ditu berak eduki beharko litzuzkeen kale kopurua, taldearen bolumena kontuan izanik. Horrela, entrenamendu nahiz klase duin batzuk emateko zailtasunak izaten dira, gainera, batzuetan, talde bat baino gehiago egonik igerilekuan momentu berdinean, erabiltzaileentzat ia lekurik geratu gabe.

Idatzitakoa garbiago ikusteko asmoz, taula bat atxikitzea izango litzateke hoberena, bertan igerilekuak dituen ordu kopurua nola banaturik dagoen ikusten delarik, dauden taldeekin. Ikusi besterik ez dago gaur egun dagoen zailtasuna igerilekuan guztiok sartzeko (Azkoitia Udala, 2018) (Elkargunea Azkoitia, 2018).

Taula 11: Igerilekuaren okupazioa aste guztian								
ORDUAK	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA	
7:00 - 9:15	Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	ITXITA	ITXITA	
9:15 - 10:15	Helduen igeriketa (1 kale) Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (3 kale)	Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (4 kale)	Helduen igeriketa (1 kale) Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (3 kale)	Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (4 kale)	Helduen igeriketa (1 kale) Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (3 kale)	Haurtxoen igeriketa igerileku txikian Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	
10:15 - 12:15	Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (4 kale)	Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (4 kale)	Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (4 kale)	Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (4 kale)	Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (4 kale)	Haurtxoen igeriketa igerileku txikian Erabiltzaileak (5 kale)		
12:15 - 12:45	Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	ITXITA	
12:45 - 13:45	Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (3 kale)	Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (3 kale)	Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (3 kale)	Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (3 kale)	Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (3 kale)			
13:45 - 15:15	Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)			
15:15 - 15:45	Helduen igeriketa (1 kale) Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (3 kale)	Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (4 kale)	Helduen igeriketa (1 kale) Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (3 kale)	Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (4 kale)	Helduen igeriketa (1 kale) Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (3 kale)			
15:45 - 16:15	Helduen igeriketa (1 kale) Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (3 kale)	Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (4 kale)	Helduen igeriketa (1 kale) Eskolarrak (1 kale) Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (1 kale)	Eskolarrak (1 kale) Erabiltzaileak (4 kale)	Helduen igeriketa (1 kale) Eskolarrak (1 kale) Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (1 kale)			
16:15 - 17:15	Erabiltzaileak (5 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (3 kale)	Erabiltzaileak (5 kale)	Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (3 kale)			
17:15 - 19:00	Haurren igeriketa (1 kale) Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (2 kale)	Haurren igeriketa (1 kale) Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (2 kale)	Haurren igeriketa (1 kale) Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (2 kale)	Haurren igeriketa (1 kale) Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (2 kale)	Dibertsitate funtzionala (1 kale) Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (2 kale)			
19:00 - 20:00	Helduen igeriketa (1 kale) Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (2 kale)	Dibertsitate funtzionala (1 kale) Aquagym (1 kale) Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (1 kale)	Helduen igeriketa (1 kale) Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (2 kale)	Zubiaurre (2 kale) Aquagym (1 kale) Erabiltzaileak (2 kale)	Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (3 kale)			
20:00 - 20:45	Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (3 kale)	Zubiaurre (2 kale) Aquagym (1 kale) Erabiltzaileak (2 kale)	Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (3 kale)	Zubiaurre (2 kale) Aquagym (1 kale) Erabiltzaileak (2 kale)	Zubiaurre (2 kale) Erabiltzaileak (3 kale)			ITXITA
20:45 - 21:45	Master taldea (5 kale)	Master taldea (5 kale)	Master taldea (5 kale)	Master taldea (5 kale)	Master taldea (5 kale)			

Iturriak: Azkoitiko Udala, Masquatro eta Zubiaurre I.E

### 4.3.2 Irisgarritasuna

Instalakuntza duin batzuk izaterako orduan, ez da soilik igerilekuaren tamainari edo kale kopuruari erreparatu behar, baita herriko edozein norbanakori egokituriko instalazio batzuk egin behar dira. Aztertzen hasirik, gaur egungo igerilekuak irisgarritasunaren alde-tik, ez ditu hainbat eta hainbat standard minimo betetzen.

Honi adibide batzuk jartzeko asmoz, lehenik eta behin, bertara heltzeko dauden eskailera multzoak izango lirateke kiroldegi honek dituen lehen oztupoak, hainbat aldiz agertu izan delarik eztabaida hau erabiltzaileon artean. Gainera, hasiera batean aipatu den demografiaren zahartzea dela medio, honek horrela jarraituz gero, urte batzuetara arazoa handiagoa izango dela iruditzen da erabiltzaileon artean, jendea zahartzen joaten den heinean, ezin izango baitu kiroldegiko hainbat instalakuntzetara iritsi, igerilekua kasu den bezala.

Guztia ez da adinaren araberako arazoa ordea, jendeak baditu beste hainbat oztopo igerilekura iristeko, eta hauek, adibide batez, dibertsitate funtzionala duten jendearen artean daude, oztopoak besterik ez baitituzte izaten bertara heltzeko.

Hasiera batean, dibertsitate funtzional terminoaren definizio txiki bat jarriko dut, hobeto ulertzeko asmoz honek esan nahi duena, eta hauxe da *Euskalterm*-ek esaten duena: estatistikoki, pertsona gehienek dituzten funtzionalitate edo gaitasunez bestelakoak dituen pertsonaren tasuna da dibertsitate funtzionala. (Euskalterm, 2018)

Pertsona batek dibertsitate funtzionala izanez gero, behar berezi batzuk izan ditzake bere eguneroko jarduera batzuk egiteko. Hurrengo taulan azaltzen dira dauden aniztasun funtzional motak:

Taula 12: Dibertsitate motak eta definizioak	
DIBERTSITATE MOTA	DEFINIZIOA
FISIKOAK	mugikortasun murriztua duten pertsonak
BISUALA	itsuak diren edo ikusmen-urritasuna duten pertsonak
ENTZUMENEZKOAK	gorrak diren edo entzumen-urritasuna duten pertsonak
INTELEKTUALA	gaitasun kognitibo mugatuak dituzten pertsonak
ORGANIKOAK	arnas, bihotz edo bestelako eritasunak dituzten pertsonak

Iturria: Ikasleak egina

Hauen guztien integrazioa bermatzeko asmoz, guztiz ezinbestekoa izango litzateke igerilekuko instalazioak gutxieneko baldintza batzuen barnean sartzea.

Demografia aztertu denean argi gelditu den bezala, Azkoitiko biztanleria zahartzeak aldaketa ugari ekarri ditu herriko hainbat sektore ezberdinetan, eta igerilekuaren kasuan, are gehiago, beraz, instalazioak beraien beharretara ere aplikatu behar direla garbi dagoelako. Beraien eskubideen barnean dagoela argi dago berauei egokituriko instalazio batzuk egitera, beraien funtzio fisikoak denborarekin murriztuz joango baitira (eta baita gureak ere denboraren poderioz), beraz, erraztu beharreko bidea da. Honetaz aparte, adin horietan igeriketarako ematen dituen onurak izugarriak direla ikusirik, geroz eta indar gehiagorekin erraztu behako zatekeen.

Gaur egun dauden igerileku eta azpiegiturekin, hala pertsona heldu nola dibertsitate funtzionala duen pertsona batek, guztien bezala eskailerak igo beharko lituzke. Hau ezin izango balu egin, sarrera berritik igogailua hartu beharko luke, aldapa luze bat berantz

jaitxi, beste igogailu bat hartu eskailerak ekiditeko eta igerilekuaren altuerara jartzeko, eta sarreran eman dieten 2 giltzez baliatuz, bi ate ireki, ondoren igerilekuko komunetan aldatuz, igerilekuko azken atea pasatuz, bertara iritsiz. Hau gutxi balitz, bide honetan guztian zerbait gertatzen bazaie, inor ez luke izango alboan esku bat botatzeko. Hau esanik, legedira jotzen badut, gaur egungo igerilekuak Dekretu Errealaren 505/2007 lehen artikulua ez du betetzen. Bada, honetan, *“Las condiciones básicas que se establecen a continuación tienen por objeto garantizar a todas las personas la utilización no discriminatoria, independiente y segura de los edificios, con el fin de hacer efectiva la igualdad de oportunidades y la accesibilidad universal.”* azaltzen den (Fomento, 2007).

Hau esanda, pertsona guzti orori instalakuntza batzuk erabiltzeko diskriminaziorik gabe, independenteki eta segurtasun minimo batzuekin ibiltzea helarazten dio, honekin aukera berdintasuna eta guztientzako izanik. Gure kiroldegian hau ez denez betetzen, Dekretu Erreal honen lehen artikulua zikintzen du.

Legedi honekin jarraituz, irisgarritasunak igerileku honetan duen arazoa azpimarratzeko asmoz, 4. Artikulua ere urratzen duela argi ikusten da. Bertan, *“La adecuación de los pavimentos para limitar el riesgo de resbalamiento y para facilitar el desplazamiento a las personas con problemas de movilidad”* (Fomento, 2007)

Azkoitiako kasuan, lurra ere irristakor dagoela argitu behar da, gurpildunen kasuan zailtasunak izanik adibidez bertan ibiltzeko, baita igerileku bertan ere hainbat eskailera izanik igerileku txikitik handira pasatzeko ere.

Hau gutxi izango balitz, eta aurretik aipatu dudan nibel ezberdinetako lekuak daudela azpimarratuz, 5. Artikulua esaten duenari erreparatuko diot. Honek, *“Entre los espacios accesibles ubicados en cotas distintas existirá al menos un itinerario accesible entre diferentes niveles que contará, como mínimo, con un medio accesible alternativo a las escaleras”* (Fomento, 2007)

Bertan agertzen den bezala, nibel ezberdinetan kokaturiko bi leku ezberdinek. Gutxienez eskaileraz aparte, beste moduren bat izan beharko du bertara iristeko, aldapa txikiren bat adibidez. Kasu honetan, ez dago ez aldapa ezta beste mediorik ere bertara iristeko.

Hau gutxi izango balitz, igerileku handian badago makineria dibertsitate funtzionala dutenek uretara sartzeko laguntza behar izanez gero, baina aipatu beharra dago honen erabilera oso murrizta dela, horrenbeste traba izanik igerilekura heltzeko, ia ez baita ibili ere egiten.

Aulki hau, aurreko puntu batean aipatu den moduan, igerilekuko kale batean dago atxikiturik, eta bertan igerian dabiltzanei ere trabak suposatzen dizkie, kale horretarako zati bat ere hartzen baitu. Badaude sistema hau hobetzeko hainbat metodo ere, adibidez,

finkoa izan beharrez, eramangarria izatea. Hau, ez da horren garestia eta hainbat erraztasun ekarriko lekiok igerilekuari. Alde batetik, dibertsitate funtzionala dutenak askoz ere erosoago sartuko liraterke uretara, eta kale horretan igerian ibiltzen direnak ere oztoporik ez lukete edukiko eguna joan eguna etorriaz.

Azpeitiko kasua hartzen bada kontutan, bertan aurretik aipaturiko sistema eramangarria dute, behar dutenean bakarrik erabiltzen baitute. Baina sistema honek ere erabilpen egokia behar du, erabiltzaileak berak bakarrik erabili dezakelarik, inoren laguntzarik gabe. Autonomia hau eduki behar dela, 6. Artikuluan argi agertzen da: *“La disposición del mobiliario tendrá en cuenta la utilización segura e independiente por parte de las personas con discapacidad, especialmente la discapacidad visual”* (Fomento, 2007).

Legeen azpimarraketa amaitzeko asmoz, soilik azken artikulua bat erreparatu nahiko nuke. Hau, 7. artikuluari deritzona da. Bertan, *“Se dispondrá la información, la señalización y la iluminación que sean necesarias para facilitar la localización de las distintas áreas y de los itinerarios accesibles, así como la utilización del edificio en condiciones de seguridad”* (Fomento, 2007).

Honetan, gutxieneko batzuk betetzeko asmoz, informazioa, seinalizazio eta argiztapen gutxieneko batzuk izan behar ditu instalazioak, segurtasun baldintza batzuk betetzeko asmoz, igerilekuan ere falta direnak.

Estatistikei erreparatzen hasiz gero, dibertsitate funtzionala duen populazioaren gorakada nabaria aurreikusten da (Brault, 2012). *WHOren arabera*, orain dela sei urte egin zuten analisisan, 600 milioi pertsonen ezintasun bat dutela ikus daiteke mundu mailan, eta honen hurrengo urteetako joera goranzkoa dela aipatzen da.

Beraz, laburbilduz, hau guztia esan eta gero, argi geratzen da dibertsitate funtzionala duten jendearentzat moduko instalakuntza duin batzuk behar direla gure herrian, igerilekuko irisgarritasunaren hobekuntzak behar bezalako garrantzia izanik eta aurrerago aztertuko ditudan proposamenetan, irisgarritasuna eta aurretik aipaturiko guztia kontuan hartu behar dela argi geratzen da.

#### 4.3.3 Txapelketak egiteko gutxieneko neurriak eta ekarriko dituen onurak

Behin igerileku duin baten proiektua martxan jarri baino lehen, guztiz garrantzitsua izango litzateke bertan txapelketa ofizialak egiteko moduko instalazioak egitea. Honen zergatia garbia da, Azkoitiko herriari ekarriko dion kirol onura nahiz kulturala handia izango baitzen, baita ekonomikoa ere. Zubiaurre I.E.aren helburua ez da ordea Gipuzkoa edo Euskadi mailako txapelketak ekartzea, baina behin igerilekua egiten hasita... zergatik ez? Igeri talde sendo bat izanik, herriko jendeak nibela izanik bertan parte hartzeko... zer hobeto bere herrian baino?



Gipuzkoako Igeriketa Federazioarekin hitz egiteko parada izanik gai honen inguruan, eta zein baldintza izan behar dituen igerileku batek galdetzea izan da lehen pausoa, tamaina honetako txapelketak ospatzeko asmoz. Egun dagoen igerilekua oinarritzat harturik, Gipuzkoako ligako jardunaldiak antolatzea da soilik posible. Horren gainetik zerbait gehiago antolatzea nahi bada, Gipuzkoako txapelketaren bat adibidez, beste zenbait baldintza bete behar ditu igerilekuak, egun ez dituenak. Hortik aurrera, Euskadi edota Espainiako txapelketak bertan egiteko, neurriak geroz eta gogorragoak direla argi dago. Hau esanik, Gipuzkoako federazioak hainbat neurri eman dizkigu (Gipuzkoako Igeriketa Federazioa, 2018)

Taula 13: Igerilekuak izan beharko lituzkeen gutxienerako neurriak	
GUTXIENERAKO KALE KOPURUA:	6. gehiago balira hobe
KALEEN ZABALERA:	Gutxienez 2 metro. Gomendagarria 2,5 metro
GUTXIENERAKO SAKONERA:	1,2 metro
GEHIENGO SAKONERA:	2,2 metro
SAKONERA TRANPOLIN ALDEAN:	Gutxienez 1,40 metro. Gomendagarria 1,80 metro

Iturria: Gipuzkoako Igeriketa Federazioa

Atxikiturik dagoen taula honetan ikusten den bezala, Gipuzkoako txapelketa bat egitea nahi bada, gutxienez 6 kaleko igerilekua beharko lirarteke, 25 metro luze dituen gutxienez eta kaleen artean 2 metro izan beharko lituzkela, 2,5 metro komenigarriagoa izanik. Bestalde, sakonera ere kontuan hartu beharrekoak direla esan didate, 1,2 metroko sakonera izanik gutxienerakoa eta 2,2 metro gehienekoa. Trampolin aldean ordea, 1,40 metro izan beharko ditu, gomendagarriagoa 1,80 metro izanik.

Txapelketengatik ere galdetzeko parada izan da federakuntzakoei, interesa baitago igerileku berri bat sortzerako momentuan, bertan ligako jardunaldiak baino zerbait gehiago sortzea. Hau horrela izanik, esan dutenez, txapelketak ekartzeko orduan, data batzuen barruan egin behar omen da eskaera, eta igeri talde bat baino gehiagok egiten omen dute normalean.

Hau horrela izanik, hainbat herriko igerilekuak inskribaturik daudenean, Federazioko Zuzendaritza Batzordea elkartzen da eta beraiek erabakitzen dute zein lekutan antolatuko den hurrengo txapelketa, hurrengo datuak kontuan harturik: igerilekuak dituen kale kopurua eta hauen sakonera, krono elektronikoa kokatzeko dagoen aukera igerilekuan, harmailak nolakoak diren... hau da, igerileku bere osotasunean baloratzen dute, eta momentuan dagoen beharrari erantzunez aukeratzen dute.

Hau gutxi izango balitz, horrelako txapelketa bat antolatzeagatik bai igeri taldearentzat, bai eta herriarentzat ere izugarrizko onurak daude. Ekonomikoki erreparatuz gero, igeri talde guztiek diru kantitate bat ordaindu behar dute txapelketa horietara joateagatik, eta diru hau antolatzen duen igeri taldearentzat doa, txapelketa hori kudeatzeko asmoz. Beraz, Zubiaurre taldearentzat izango litzateke onura hori.

Bigarrenkoz, herri mailan ere inpaktua handia izango zen. Horrelako txapelketa bat antolatzen den momentuan, larunbat eta igande goiz eta arratsaldean izaten direla kontuan hartuta, kanpotik etortzen diren igerilariak bertan geratu behar dute bazkaltzen. Kontuan izan behar da horrelako txapelketa batek 300 bat igerilari ekartzen dituela Gipuzkoa osotik, eta hauez gain, beste 300 bat guraso eta senitarteko. Beraz, herri mailan bazkaldu beharko lukete guztiek, herriko ostalaritzari bultzada izugarria emanez.

Nahiz eta Gipuzkoa mailan ez izan horren ohikoa, Euskadi mailan sarri gelditzen dira hainbat talde bertako ostatu eta hoteletan gaua pasatzen.

Honek guztiak, Azkoitian igeriketak indar gehiago hartzera bultzatuko luke, horrela, oihartzun handiagoa izanik eta Zubiaurrek komentaturiko babesletza arazoak errazago sendatuz.

Gainera, horrelako txapelketei zukua ateraz, Azkoitiko Tabernari Elkartek ere hainbat kontzertu antola ditzake, horrela asteburuan jendea kalera joanez, baita gazteek ere gaua aprobetxatuz, kulturalki aberastasun puntua emanez.

Onura sozialak ere geroz eta handiagoak izango lirateke, igerileku berri baten eraketa dela medio. Igerilekua berrituz, eta ondorioz, kale kopurua handiagoa izanik, erabiltzaileentzat leku gehiago izango litzateke, arratsaldetako saturazio hori zertxobait ekidinez, eta lehen ez zirenak joaten leku faltagatik, orain joateko aukera edukiz. Baita hasteko gogoz dauden jende horrentzat ere askoz errazagoa izango lirateke beldur hori kentzea, masifikazio gabe lasai egingo bailukete igerian, eta ez orain dauden baldintza txarretan, etxean geratzea nahiago izaten baitu horrelako jendeak, beldurrez.

Bestalde, adindun jendearentzat ere askoz komenigarriagoa izango zen kale gehiago izango lituzkeen igerilekua edukitzea, horrela kale bakoitzean jende gutxiago egongo baitzen eta beraiek lasaiago egingo baitzuten igeri, horretara joaten baitira, deskonektatzera eta lasaitasunez ibiltzera bertan.

Dibertsitate funtzionala duten jendearentzat ere beste lasaitasun bat izatera helduko zen, bertara lasai joanez eta honekin igeriketa lasai bat praktikatuz, gainera honi irisgarritasun arazoaren bir planteamendua gehiturik eta errazago iritsiz igerilekura, aurrerapausoa askoz ere handiagoa izanik.

Azkenik, inpaktu sozial honekin amaitzeko, bai igeri taldearentzat, master taldearentzat, triatloi taldearentzat edota etorkizunean datozen talde berri hauentzat guztientzat, beraiek beharko lituzken beharretara moldaturik egongo litzateke igerilekua eta beste aldakatarik ez zen egin beharko, hau kirolarien emaitzetan argi isladaturik geratuko lirateke eta.

## 5 Eragileak

Orain artekoarekin, Azkoitiko igerilekuaren nondik norakoaren oinarri bat irudikatu daiteke. Baina oinarri hau irudikatu ondoren, benetako faktoreetan sartzea ezinbestekoa da. Hau, igerilekua erabiltzen duten taldeekin elkartuz lortu daiteke, eta hauxe izan da ondorengo pausoa. Errealitatera ahalik eta gehien gerturatzeko asmoz, igerilekua erabiltzen duten taldeekin elkartuz, bizi duten egoera bertatik ikusteko asmoz. Eragileak, elkarriketatuek eta hauen karguak metodologiaren zatian aipatuak izan dira taula baten bidez.

Hasteko, IDO (Instalakuntza Duinak Orain) taldeko Xabi Barkerorekin berba egiteko parada izan dut. Bera, plataforma honen sortzaileetako bat da, eta bertako kide da gaur egun, igerileku berri baten sorrera eskatzen ari delarik taldea.

Ondoren, Zubiaurre Igeri Elkarteko zuzendari den Pablo Dominguez eta Roman Artola diruzaina denak elkarriketatzeko aukera izan dut. Igeriketa Master taldeko partaide den Xabier Uzinekin ere hitz egitea lortu dut, honek beraien hastapen eta hasierak kontatu dituelarik.

Masquatro enpresa pribatuak kiroldegiaren kudeaketa ematen duenez, bertan egiten diren aktibitateak ere garrantzia dutela ikusia denez, igerilekuari lotuta egiten diren kirol ezberdinak aipatzea garrantzitsua da.

Kirol taldeekin jarraituz, Triatloi taldeak ere bere zatia eduki behar duela ere argi dagoenez, beraiek ere kirol honetan entrenamenduak egitea ezinbestekoa baitute. Honela, Aitor Tertzio triatletarekin hitz egin dut.

Eragileekin amaitzeko, Azkoitiako udaletxea eta inguruko bi herriko (Azpeitia eta Elgoibar) Kirol Patronatuetako zuzendariekin ere hitz egiteko parada izanik, hauen gora beharak gertutik ezagutzeko asmoz, eta beraien alde onak hartzeko asmoz, Azkoitian islatzeko asmoz.

Beraz, hau esanda, igerilekuari loturiko taldeekin elkartzuz, gaur egun dagoen errealitatea hobeto islatzea du helburu atal honek, ondoren diagnostikoa egiteko asmoz.

## 5.1 Instalakuntza Duinak Orain (IDO) plataforma

Instalakuntza Duinak Orain! Plataforma, Azkoitiko igerilekuko hiru erabiltzaileen artean sorturiko taldea da. Xabi Barkero, Ane Aranbarri eta Peru Portalo dira talde honen buru hartu zutenak, urte askotan zehar beraien errutinaren parte izan baitzen igeriketa, eta beren herriko igerilekuak eraberritze bat behar zuela sinetsiz, arazo horren aurrean aurpegia ematea erabaki zuten hiruren artean, horrela, konponbide bat bilatzeko asmoz, beraien ondoren datozen igerilari, erabiltzaile eta edozein pertsonak instalakuntza duin batzuek gozatu arazteko.

Hirukoteak hasieratik garbi zeukan bide luze bezain gogorra izango zela igerileku duin batzuk lortzea, eta honen inguruan eman beharreko pausoak banan-banan guztien artean behin eta berriz sakon aztertu behar zituztela, horrela gauzak ondo eginik, herria ohartaraziz zein behar duen igerilekuak, eta gauzak aldatzen joateko poliki-poliki.

Hirukote hau, 2017ko udan batu zen lehen aldiz mahai baten inguruan, zegoen eta gaur egun ere dagoen arazo honi irtenbide zuzen bat emateko asmoz. Taldea sortu zen momentuan, erabaki zuten ezer publiko egin aurretik, Udal ordezkariari jakinarazi behar ziretela, eta horretarako, aurkezpen eskutitz bat bidali zioten, elkarlan asmoa adieraziz, eta talde berri horren sorkuntzaren nondik norakoak adierazteko asmoz.

Hasiera horren ondoren, igerilekuaren bizitza guztian zehar egon diren erabiltzaile askorekin hitz egiten zuten, eta hainbat bideo argitaratu zituzten (6 atal ezberdinetan banandurik) honen harira, beraien esperientziak eta orain dela urte askotatik dagoen arazoa adieraziz, herriari ahots batez zabaltzeko. Besteak beste, igeri taldean hasiera batean eta lehen ibiltzen ziren igerilari ohien esperientzia eta bibentziak, herritarren gora behearak, sorosleen iritzia, sortzaileena.... hartzen da kontutan.

Azkoitiko kirol zinegotziari, udaletxearekin bilera bat egiteko nahia ere adierazi zion IDO plataformak, taldeak zituen etorkizuneko asmoak adierazteko asmoz, horrela udal taldearen lehen inpresioak jasotzeko asmoz, elkarlaneko beste pauso bat ematekotan.

Plataformaren hurrengo pausoa, eta jendartera argitaratu aurretik, informazio bilketerena izan zen, txosten bat sortzeko asmoz, jendeari erakutsi ahal izateko herrian zegoen beharra eta ordura arteko eginiko lana. Informazio bilketa horretan, lehen pertsona egon ziren bai Foru Aldundi, Azkoitia eta Azpeitiko Udaletxearekin, eta Kirol Kontsultazio eta Masquatrorekin ere, baita prentsa ezberdinak irakurriz informazioa jasoz, ondoren txosten formal bat eratzeko asmoz.

Horren ondoren, irisgarritasun legedia ere berrikusi zuten, igerilekura joan gabe inor ez geratzeko asmoz. Azkenik, Gipuzkoako Igeriketa Federazioarekin ere hitz egin zuten, Azkoitia bezalako herri batean igeriketa txapelketak egiteko asmoz, igerilekuak zein dimensio hartu beharko litukeen jakiteko asmoz.

2017ko urriaren 4a iritsi zen azkenean, hirukotearentzat data garrantzitsua izango zena, Instalakuntza Duinak Orain! Plataforma publikoki adieraziko zutelarik, horrela, bilera ireki bat antolatu zuten herri guztiarentzat, eta hainbat interesatu agertu zirelarik bertara. Bilera horretan, herritarrei ordura arteko eta aurretik aipaturiko informazioa azalderatu zioten, horrela, bilera ireki horretan elkartu ziren interesatuengan proposamenak jasotzeko asmoz.

Horren ondoren, bilera bertan lan talde bat (talde eragile izena hartu duena) sortzekoaren proposamena zabaldu zuten, momentuan bertan sorturik taldea (denboraren penderioz taldea handituz joan da). Horretarako, talde hori korreo bidezko sare batean nahiz Whatsapp bidez dago elkar loturik, horrela beraien artean informazioa pasatzen dutelarik, proposamenak botaz, hurrengo bilerak finkatuz, bileretako aktak pasatuz, eta egiten dituzten aktibitateak koordinatuz.

Urriaren 4a geroztik, IDO plataformak hainbat aktibitate egin ditu herri mailan. Horietako bat, San Andres egunean herriko plazan pankarta handi bat jarriz, Igerileku duin batzuk aldarrikatzeko asmoz, edota tanborradan hainbat pegatina sortuz eta jendeari helaraziz... San Andres egunean ere oterra bat zozketatu zuten, bertan ateratako dirua plataformaren barne finantzaketari emanaz, bertako gastuak estaltzeko asmoz.

Honen ondoren, eta marketin pixka bat eginez, sinadura bilketa sakon batekin jarraitu zuten. Aipatu beharra dago 2.000 sinaduratik gora lortu zituela taldeak, eta orain, udalarekin elkarlanean ari denez, Foru Aldundian aurkezteko asmoa ere baduela, igerileku berriaren proiektua aurrera doan heinean, bertako diru laguntzak lortzeko asmoz, herriaren bultzada duela adieraziz.

Galdeketa bat ere egin zuten kiroldegiko erabiltzaileentzat eta ez direnentzat ere, igerilekuaren inguruko mezuak eta iritziak jasotzeko asmoz.

Azkenik, IDOko kideak hurrengo pausoak aztertzen ari dira, zer egin behar den, nola... baita adituen hainbat presentazio ere buruan dituzte, horrela igeriketak dituen onurak jendartera adierazteko asmoz, herritarrek jakin dezaten benetan zenbat onura dituen eta zein garrantzitsu den herrian bertan igerileku duin batzuk edukitzea, horrela onura horietaz abantaila ateratzeko asmoz. Baita beste kirolekin ere nahi du lotu, igeriketak lesioen errehabilitazioan duen garrantzia ere adieraziz.

## 5.2 Zubiaurre I.E

Zubiaurre Igeriketa Elkarteak orain dela 25 urte sorturiko kluba da, igerilekuak atekak zabaldu eta urtebete antzera sortua izan zena. Talde hau sortzeko arrazoia, batik batik, hainbat haurren gurasoengatik dator, garai haietan igeri egitea nahi zuten beraien txiki- txoek, behar horri erantzuna emanez bilduz beraien gurasoak, taldea sortuz, beraien seme-alaben gogoei erantzuteko asmoz.

Igeriketa ikastaroetatik hasirik, seme-alabak gustura ibiltzen zirela hauteman zuten gurasoek, eta hori horrela izanik, beraien progresioa emateko asmoz, konpetitza zenez bide bakarra, hortik hasi zen sortzen Zubiaurre. Talde txiki bat izatetik, deialdiak egiten hasi ziren jendea beraien batzeko asmoz, entrenatzaileak topatzen hasi ziren, udaletxe- arekin negoziazioei ekin zieten gauzak aurrera eramanez ahal izateko, eta baita kiroldegi- arekin hitz egin ere, kaleen banaketa eta kudeaketa zutela helburu.

25 urteren ostean, hainbat guraso pasatu dira guraso elkarte horren gidaritzatik, gaur egun iritsi diren lekuraino iritsiz. Egun, Roman Artola eta Pablo Dominguezekin hitz egin denean, guraso elkartearen dauden taldekideak, bakoitzak "rol" ezberdina duela adierazi dute, eta izen figuratibotzat harturik dituztela, formalki agertu behar dutenean horrela eskatzen baitiote, baina guztiek talde bat direla eta bakoitzak ahal duenarekin laguntzen duela aipatu dutelarik. Soilik igerilarien gurasoak direla azpimarratzen dute, klubari laguntza emateko asmoz daudela bertan. Duten barne-politikaren arabera, emakume eta gizonezko kantitate berdina mantentzen saiatzen dira. Gaur egun 8 direlarik guraso elkartearen sortzen dutenak:

- Pablo Dominguez, zuzendaria.
- Roman Artola, diruzaina: taldearen diru kontuak ematen ditu.
- Itziar, idazkaria: bileretako aktak jasotzeko eta batzarrak osatu.
- Xabier, Itziarren laguntzaz, komunikazio atala: Egunkariak, aldizkariak, web orria... eramaten dute.
- Taldeko beste 4 pertsonak, oinarrizko gauzetan ibiltzen dira, baina beti botatzen dute esku bat behar denean.
- Edozein akto publikora joateko, neska eta mutil joaten saiatzen dira beti.

Beraz, haxe izango litzateke guraso elkartearen osatzen duten taldea. Aurretik aipaturiko 4 izenak, Pablo, Roman, Itziar eta Xabier, taldeko beteranoak dira, bertan 2 urte daromatzen, eta gainerako beste 4rak, aurreko sartuak dira taldera. Beraz, barne-politikari jarraiki, beteranoek, berrienei irakasten diete, hauek izango baitira denbora gehiagoz egongo direnak taldean, hurrengoei irakatsiz... kate lanean.

Guraso elkarteak alde batera utziz, Alex Herrero eta Peio Benitez daude langile bakar bezala taldean, hau da, bertatik bizi direnak. Alex, eskarmentu handiko gizona da, 17 urte daramatza taldean jada; Peioren kasuan berriz, aurten du bere bigarren urtea entrenatzaile gisa. Nahiz eta orain hasi den, ez da atzean geratzen eta dagoeneko Gipuzkoako nahiz Euskadiko selekzioetako entrenatzaile ere izan da.

Alexen kasuan aldiz, bere eskarmentu guztia ari zaio Peiori irakasten, eta entrenamenduak jartzeaz eta gazteak entrenamenduak ongi egiteaz gain, txapelketetara joaten dira eta igerilari guztien fitxak eta lizentzien kudeaketa ematen dute. Orain, elkarteak ez du nahi horrenbeste pisu izatea entrenatzaileek, eta beraiek egiteko konpromezua hartu dute.

Honetaz aparte, guraso berriak sartu zirenean elkartera, hau da, orain dela bi urte, esan dute behar asko ikusi zituztela klubean, oraindik garatu ez ziren hainbat zerbitzu nahiz atal ekonomikoak ikusiz.

Alde batetik, Zubiaurre, herriarekin lotura gabeko kluba zela behatu zuten, herriak eza gutzen zuelarik, baina ez zutela herri ekimen lotu bat bezala ikusten. Komunikazio aldetik ere, garapen murrizta zuela esan dute, nahiz eta haur asko ibiltzen diren, klubak ez zuela bere burua saldu jendartean adieraziz.

Hau ikusi bezain laster, gabezia hori betetzera joan ziren, elkarte barruan komunikazio atal bat sortuz, eta beraien ardurapean utziz herriari beraien informazioa zabaltzea hala nola, herriak zenbaterainoko mugimendua eta indarra zegoen ikusteko asmoz.

Aitortzen dute gainera, babesle bila joanez gero, inork edo ia inork ez duela dirurik ematen, futbola nahiz saskibaloiak duen oihartzuna ez baitute nabaritzen inguruko enpresek. Beraz, beraien nahiak zabaltzeko asmoz, komunikazio taldeak, "El Diario Vasco" egunkariarekin hitz egin zuen, bertan kronikak argitaratzeko asmoz, edota baita Azkoitiko aldizkaria den "Maxizatzen"-ekin ere harremanetan jarri ziren, beraien oihartzuna herri mailan ere handiagoa izan zedin, honela babesleak ere errazago aurkitzeko asmoz. Hau gutxi izango balitz, web orri bat ere martxan jarri zuten, eta eguneratuta eramaten dute gaur egun, beraien marka, txapelketa... eta notizia guztiak bertan argitaratuz.

Esaten dutenez, lan zailena da babesleak aurkitzea, futbol zelai batean egon behar dutela ikusten baitute enpresek, baina inork ez baitu ikusten igeri talde batean egon behar duenik.

Aipatu beharra dago ere, babesletzak aurkitzeko, ez dutela orain arte lan handirik egin, eta hori datorren lana dela, hurrengo urteetan saiatuz hauek lortzen.

Klubaren finantzaketari erreparatuz gero, saneaturiko talde batekin aurkitzen gara, momentuan momentukoari erantzunik, etorkizunera begiratzen egon baino gehiago, gaur egungoari begiratuz. Horrela, egun dituzten beharrei erantzuna ematen saiatzen dira, etorkizunean etorkizunekoari erantzunez. Ekonomikoki, soberarik gabe ibiltzen direla adierazi du Artola diruzainak, behar denean behar duten diru kantitatea lortuz, baina sekula ez modu lukratibo batean, beraien helburua zerbitzua ematea baita, inork zentimorik ere irabazi gabe. Beraz, beraien finantzaketa beharrei erantzuteko lortzen dute soilik.

Nahiz eta gaur egun ari diren aldaketak ematen talde mailan, orain arte ez dute berrikuntza handiak izan dituen talde bat bezala definitzen. Dagoenari dagoenarekin eustea nahi izan dute, eta dagoen diruarekin dauden beharretara iristea.

Klubaren finantzaketa, igerilariak ordaintzen dituzten kuotetatik eta udaletxeak ematen dituen diru-laguntzetatik lortzen dute batik bat. Taldeak dituen diru sarrerei erreparatzen badiogu, aurten 9.500€ jaso dituzte lehen aldiz udaletxetik, beste urtetan baino 500€ gehiago, 9.000€ jasotzen bai zituzten orain arte.

Udaletxearen laguntzaz aparte, igerilarien kuotak dituzte, adinaren arabera kuota desberdinak dituztelarik hauek, guztira 9.500€-10.000€ inguru jasorik gazteen kuotetatik. Aipatu diren kuoten zifra hauek, ondoren agertuko den taula eta datuetatik dator. Bertan, gainera, argi agertzen da igeri taldeak izan duen igerilari kantitatearen hazkuntza, azken 7 urtetatik hona. Zoritzarrez, aipatu dutenez, klub hau beti izan da edozein igerilari hartzen duen horietakoa, baina kale kopuru murriztagatik eta igerilari asko izateagatik, horrela jarraitzen badute, filosofia aldaketa bat ekartzera bultzaturik daude, hurrengo urtean jendeari lehen aldiz “ezetza” ematen hasi beharko baitute taldeko kide izateko.


Taula 14: Zubiaurre I.E igerilari kopurua urtez urte eta mailaz maila

URTEAK	1. URTEA	2. URTEA	3. URTEA	EGUARDIKOAK	GAUEKOAK	GUZTIRA
2011-12	33 (2)	32 (2)	17	25	20	127
2012-13	33 (2)	22 (2)	22	20	26+2	125
2013-14	35 (2)	23 (2)	14	20	30+3	125
2014-15	44 (2)	18 (2)	16	19	32+6	135
2015-16	43 (2)	31 (2)	13	19	30+7	143
2016-17	29 (2)	27 (2)	27	18	29+6	136
2017-18	49 (2)	23	16	32	34+4	160

Iturria: Zubiaurre I.E



Grafikoa 5: urtez urte maila bakoitzeko igerilari kopuruaren bilakaera



Iturria: Zubiaurre I.E

- Federatu gabeko igeri eskolan ibiltzen diren haurrak
  - o 2010. Urtean jaiotakoak: 49 haur. Hauek 20€/hil kuota. 1.go urtea taldean
  - o 2009. Urtean jaiotakoak: 23 haur. Hauek 20€/hil kuota. 2.go urtea taldean
  - o 2008. Urtean jaiotakoak: 16 haur. Hauek 20€/hil kuota. 3.go urtea taldean
  - o 2006-2007 urtean jaiotakoak: 32 haur. Hauek jada 24€/hil kuota. eguardikoak
- Federaturiko haur eta gazteak (12 urtetik aurrera. Alebin, infantil...)
  - o 34 gazte. Hauek 31,5€/hil kuota. Gauekoak
  - o 4 igerilari 18 urtetik gorakoak. Hauek kuotarik ez. Gauekoak

Guztiek ordaindu behar dute (dauden 160 igerilariak) urte hasierako matrikula, 40€ direnak.

Datu hauek aipatu eta gero, esan beharra dago gaur egun igeriketa praktikatzea, Zubiaurre I.E-n ez dela oso merkea, Kiroldegiko bazkide kuota ordaindu behar baita, baita Zubiaurre I.E-ko haserako matrikula, eta dagozkion hilabete bakoitzeko kuotak.

Gainerako diru-sarrerak, %10a inguru, babesleek ematen duten ordainari esker lortzen du klubak. Adibide batez, aurten lortu dute lehen aldiz, Milar Larramendi eta Ainhoa gizonetzkoen ile apaindegiekin adostasun bat, hurrengo 4 urtetarako babesletza lotuz beraiekin. Esan beharra dago, bi enpresa txiki hauek, bertako igerilarien gurasoak eramaten dutela, eta hori izan dela babesletzaren gako nagusia, dituzten gehien antzera, egoera emozionalak duelarik garrantzi handia hau lortzeko orduan.

Beste adibide batez, Danobat enpresak 2.500€ ematen dizkio igeriketa taldeari, Sidenorrek ere laguntzen dio, Sammic-ek 100€ ematen dizkio... hauek guztiak ere guraso elkar-teak lortutako diru sarrerak dira, non familiakoek lana egiten duten, edota ezagun ba-tek... horri esker lortuz diru laguntza hauek.

Bestelako diru-sarrerei erreparatu, gabonetako loteria salduz lortzen dute. Aurten arte, hauxe zen gabon aldera egiten zutena finantzazioa lortzeko asmoz, hau da, 15.000€ sal-tzen zituzten loteri moduan haurrek, bertatik 12.000€ estatuarentzat geratzen zirelarik eta 2.500€ soilik geratuz klubarentzat.

Aurten, estrategia aldaketa bat medio, hori ez egitea adostu dute, diru gehiegi baitzen estatuarentzat, alfer-alferrik. Beraz, jendearengana edota herriko komertzio txikiengana joan beharrean diru eske, dirua herrian eta herriarentzat geratzea erabaki dute. Hau ho-rrela izanik, zenbaki borobilak jarri dituzte, konplikazioak ekiditeko asmoz. 10.000€ hartu dituzte horretarako, hortik 3.000€ herriko dendetara zabaldu dituztelarik, 7.000€ klubarentzat geldituz. Horrela izanik guztia, saria, loteriarena izan beharrean eta proba-bilitate handian ez tokatzea posible izanik, hauek, 3.000€ horiek irabazleak herriko ko-mertzioetan gastatzeko emango dizkiete, horrela irabazlea %100 tokatzeko probabilita-tea izanik, eta dirua herrian geldituz. Honekin, komertzioak gustura, herria gustura, eta herritarrek afektiboki gertuago izatea lortu dute. Herriari eman, herriak erantzuteko as-moz.

Beraz, horrela geratuko litzateke Zubiaurrek izango lituzkeen urteko sarrera eta gastuak gutxi gora behera:

Taula 15: ZUBIAURRE I.E ren sarrera eta gastuak		
	SARRERAK	GASTUAK
Udaletxeko urteroko diru partida	9.500 €	
Igerilarien kuotak	46.000 €	
Babesletzak	3.000 €	
Gabonetako zozketa	10.000 €	3.000 €
Entrenatzaileen soldatak		40.000 €
Txapelketa gastuak (janariak, hotelak, garraioa...)		11.900 €
Kirolarientzat arropa		9.600 €
Bestelako gastuak (federakuntza tasak, aseguruak...)		4.000 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>68.500 €</b>	<b>68.500 €</b>

Iturria: Zubiaurre I.E

Afektibitate hori lortzeko asmoz, Zubiaurre I.E-ko 25.urteurrena ere ospatu zuten, festa hau udaletxeak finantzaturik, baina egun honetan ere, dirua herrian utzirik, eta ez beste inora emanda. Egunean zehar egin ziren aktibitate guztiak herrian izan ziren, monito-

reak, laguntzaileak... herritarrak izanik eta kobratu zutenak beraz, beraiek izanik, herritarrak. Artola eta Dominguezek esaten dutenez, beraiek ez dute nahi klubak dirua irabaztea eta kito, baizik eta diru hori zerbaitetan inbertitzea, arrazoiren bat edukiz beti diru horren erabileran.

Diru-irteera handienak aldiz, %70 gutxi gora behera, entrenatzaileen soldatetan joaten dela esaten dute. Guraso Elkartean dagoen inork ez duenez kobratzen, entrenatzaileekin banatzen dute dirua, gainerako diru kopurua, igerilarien fitxa eta lizentzietan ordainduz joanik.

Hazkuntza bat jasatearen orduan galdetuz gero, beraiek erantzuna garbi dutela ere nabari da. Enpresa ororen ideologia hazkuntzan oinarritzen da, baina hauek, ezin dute horrelakorik egin. Ez dute gehiago haztea nahi, hori gertatuz gero, orain kluba dagoen bezala planteaturik, erori egingo baitzen guztia. Badaudela ideiak hazteko aipatzen dute, baina beti ere ongi begiraturik zertan ari diren, beraien neurriak errespetatuz. Gainera, guraso soilak direla esaten dute, beraien lana eta familia edukiz, eta bertan soilik laguntzeko daudela azpimarratuz, ez etekinik ateratzekotan.

Nahiz eta gauzak horrela izan, kluba handitzen doala esaten dute, nahiz eta ur eremuak mugimenduarentzat baldintzak jartzen dituen. Aurretik aipatu den moduan, igerilekuaren dimentsioak direla medio, ezin dute gehiago hazi, igerileku berria eraiki ezean. Kalderik ez dago igeri talde gehiago sartzeko, eskaria egonik ere, ez baitago eskaintzarik.

Azken urte honetan, taldearen banaketan zenbait aldaketa egin dituzte, talde guztien egoera kontuan hartuz. Horrela, bigarren urtekoen kasuan, talde bakarra jarri dute, orain arte bi izaten zirenean; eta gaueko taldearen kasuan bi ordutegi izaten saiatu dira egunero. Entrenatzaileek eta igerilariak adierazi dutenez, bi ordutegi izatea ez da atsegina beraiarentzat, egoerak behartuta egin behar izan baitute. Asteartetan ezin dute taldea bitan banatu, beraz uretako saioen denbora murriztu beharra eduki dute.

Udaletxearekin hainbat negoziazio izanik igerilekuaren itxiera ordua ordubetez luzatzea lortu dute, hau da, 22.00 arte, baina honek ez du indar handirik gazteen artean, ez baitu ez hanka eta ez bururik 13-14 urteko gazteak ordu horretan oraindik ere uretan egoteak. Baina ordutegi horri zukua atera zaiola adierazi beharra dut, aurrerago aipatuko den moduan.

Alex eta Peio entrenatzaileekin hitz egin ondoren, hauek, kale kopuruak eragin handia duela igerilarien entrenamenduetan aitortu dute. Igerilariak beraien artean erritmo ezberdinak dituzte. Beraiek badakite ez dela posible erritmo bakoitzeko kale bat edukitzea, baina bai kale gehiago izateak horrenbeste jenderentzat egoera hobetuko lukeela, baita igerilarien denboretan ere arrastoa utziz.

Sarri, igerilariak igeri egiteari utzi egin behar diote serie baten erdian, atzekoari pasatzen uzteko edota elkar jotzen dutelako horrenbeste jenderen artean. Honek, entrenamenduaren martxa eta dinamika asko mozten du eta eragin negatiboa du igerilariengan ere. Gainera, horrenbeste jende kale berdinean izateak, ur mugimenduak eta olatuak ere sortzen ditu, ondoko kaleetako hainbat erabiltzaileei oztopatuz igeriketa praktikatzea, edota jada igerilekura ez joatea ordu batzuen artean.

Zenbat kale beharko liratekeen ongi entrenatzeko galdetu denean, gaur egun, kalitatezko entrenamenduak posible izan daitezten, kale bakoitzean egon beharko litzatekeen gehiengo igerilari kopurua pasatu egiten dela diote. Talde bakoitzean zenbat kale beharko zituzketen esan dute bide batez:

- Igeri eskolaren kasuan (1,2,3 urteak) 3 kale izanez gero kale bakoitzean 8 pertsona egongo lirateke, nahiz eta asko izan, egoera duinago batean entrenatu luke.
- Eguardikoen kasuan berriz, taldeak zatituta jarraituko balu, 3 kalerekin nahikoa izango dutela diote.
- Azkenik, gauekoen kasuan, taldea zatituta edukiz gero, 3 kale beharko litzuketela diote; talde bakartzat izanik berriz, 4 kale gutxienez. Horrela, gehienez 6 pertsona egongo lirateke kale bakoitzean. Nahiz eta asko izan, egoera hobea izango zuen.

Azkenik, aurretik aipatua izan den bezala, Zubiaurre I.E, herriari zerbitzu bat emateko dago, hau da, herriaren beharrak entzun eta horiek asetzeko asmoa du. Hau horrela izanik, aspaldi danik dabil master talde berri baten zurrumbiloa igerilekuaren inguruan. Hori galdetu den momentu berean, argitu dute herritik ateratzen ari den behar bat dela, hau da, herritarrek beraiek ari direla esaten badagoela horrelako talde baten beharra.

Beraiek, beraien filosofiari jarraiki, ados daude eta erronka berri honi aurre egiteko prest agertzen dira, beraien laguntza emanez. Baina master talde honetan, kluba ez dela karrotik tiraka ibiliko ere adierazi dute.

### 5.3 Master taldea

Master talde bat, igeriketa egin nahi duten eta 25 urtetik aurreragoko jendearentzat da (pre-masterrak 22 urterekin hasteko gai izanik) eta beraz, nahiko heldu direla aitortzen dute Guraso Elkarteak. Horrela, master taldea osatzen dutenak egin beharko dutela "guztia" adierazi dute Artola eta Dominguezek, hau da, Zubiaurre I.Ek plataforma ema-

ten lagunduko duela, talde formal bat denez, beren estatutuak etab. aprobetxatu daitezkelarik. Horrela, master taldearen sorkuntza errazagoa eta azkarragoa izango litzateke, pauso horiek guztiak eginek egongo baitziren Zubiaurre I.E-ri esker.

Taldeak, Zubiaurre I.E izena izango du, nahiz eta master taldeak berak gobernatu beharko duen bere burua, antolamenduan batiz bat, talde autonomoa izanik. Gainera, Zubiaurrek dituen entrenatzaileak ere eskaintzen dizkio, eta kasu honetan, Peiok eramango ditu master taldearen entrenamenduak.

Master taldearen kudeaketak berebiziko garrantzia duela azpimarratu dute, guztiz ongi joan behar baitu, bestela ez baitu ezer behar kluba ere bide txarretik jartzeko.

Beraz, master taldeak bere kuotak eta izango ditu, eta taldearen kudeaketa eta Zubiaurrerena desberdinak izango dira. Igeri taldean haur guztiak elikatzen dute, eta konpetitu edo ez, batak bestea elikatzen du. Master taldean ez, master taldeak bere kontuak eta bere gauzak eramango ditu, bere burua elikatuz, sarrerak eta gastuak ongi emanez... gainera, master taldeak ere talde eragile bat izango du, master beraien nahiak eta aho-tsak helaraziko ditutelarik hauek, taldeko ordezkari bat joango baita beti Zubiaurre I.E-ko Guraso Elkarteko bileretara, nondik norakoak azaltzeko eta Zubiaurren pasatzen ari denaren berri izateko.

Hasiera batean kalkuluak eginez, master taldea autosufizientea izateko, gutxienez 15 pertsona izan beharko lituzke, 20€/hilero kuota izanik hasiera batean. Hortik aurrera, zeinbat eta pertsona gehiago merkeago izango litzateke. Azpeitiko taldea eredutzat hartzen badugu, 28€/hilero kuota ordaintzen dute eta 40 pertsona dira. Gainerako soberakinekin, 5 itsas zeharkaldi ordaindurik dituzte, udaletxeak ordaintzen dietelarik errebisio mediku potente baten erdia (negoiazioak sortu behar Azkoitiko udaletxearekin hori lortzea nahi bada..), gainerakoa master taldeak berak ordainduz, baita itsasoan igeri egiteko segurua ere ordaindurik dute.. baina hori guztia, zenbat eta jende gehiago edukiz lortuko lirateke.

Zubiaurreko I.Eko masterren kasuan aldiz, 2018ko irailean egin zen lehen deialdian, 53 pertsonen eman zuten izena hasiera batetan. Hau horrela izanik, hasieran espero ziren 10-15 pertsonen teoriak buelta ikaragarria eman zuen eta planteamendu eta entrenamendu aldaketak bultzatu zituen. Horrela, astelehen astearte eta ostegunetan entrenatu ordez, bi talde egitea erabaki zen, astelehen eta asteazkenetan talde bat, eta astearte ostegunetan bestea, gero, ostiraletan, guztiak elkaturik talde bakar batean.

Kuotari dagokionez, horrelako zifra altua izanik, 20 eurotan mantentzea erabaki zen, horrela soberakin bat edukiz taldeak, material erosketa, edota taldearen hasierako gastuak

eta kudeaketak estaltzeko asmoz. Gainera, 53 pertsonen entrenamenduak hobeto joateko asmoz, eta diru soberakina izanik, beste entrenadore bat hartzea erabaki zen, horrela bien artean emateko asmoz talde guztia.

Honez gain, aurreko atalean aipatu den moduan, ordutegi luzaketa hori, master taldera aplikatu da, eta 22.00 arte entrenatzea posible da horrela, jende heldua egongo lirateke, egunean zehar lana egiten dutenak, tarte horretan libre edukiz beren afiziora dedikatzen.

Nahiz eta master taldea, talde autonomoa izan, Zubiaurre I.E-ari lotuta dago. Honekin, klubak laguntza behar duenean binkulaturik egotea eskatzen du, adibidez, zenbait txapelketetan kronometrajeetan laguntza behar badu... master taldeak laguntzeko prest egon beharko du.

Beraz, Zubiaurreren ideia, 0 urtetatik 100 urtetara igerian egiteko aukera eskaintzea da. Gaur egun, 53 pertsona horietatik, 27 dira emakumezkoak, eta gazteenak 19 urte ditu, zaharrenak 62 urtera iritsiz. Biztanleria tarte handia hartzen duen talde anitza beraz. Horietatik guztietatik, ia 20 pertsona dira hasiera batean lehiatzeko asmotan daudenak, bai igerilekuan eta baita itsas zeharkalditan ere.

Herriaren beharrei erantzuna emaneko grina dutenez, hauek esaten dute hurrengo batean ere herriak beste zerbitzu baten beharra baldin badu, horretan ere laguntzeko prest daudela. Adibidez, ezgaitasuna duten haurrekin ere, aukeraren bat baldin badago zerbait egiteko beraiei laguntzeko asmoz, bidea egiteko prest daude.

Klubak, enbor bezala lehiatzea du helburu, baina hortik hasirik, ahal diren bide gehienak irekitzea du helburu, eta herritar guztien beharrei erantzutea. Hauek, eduki pedagogiko bat nahi dute lortu, eta herritarrek dituzten beharrei irtenbide bat nahi diete eman. Beraz, kluba, moldagarri bezala definitzen dute Artola eta Dominguezek, igerileku baten inguruan eman daitezkeen zerbitzu guztiak emateko asmoz.

## 5.4 Masquatro

Masquatro, kiroldegi eta kirol instalakuntza eta zerbitzuak aurrera eramaten dituen lurrorik gabeko enpresa bat bezala definitzen da. Hau, hiru enpresa naparren fusio baten ondoren sorturik dagoelarik, besteak beste Hydra Navarra S.L, Sedena S.L eta Serdepor S.L direlarik. Sektorean esperientzia handidun enpresa bezala definitzen dira, 50 kiroldegi baino gehiagoren gestioa ematen dutelarik, gehienbat naparrak, baina baditu beste hainbat lekutan ere, Beasain edota Azkoitia bezalako herrietan.

Esan bezala, Masquatrok besteak beste kirol zerbitzuak eskaintzen ditu, non Azkoitian gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuak ondorengoak diren (Elkargunea Azkoitia, 2018).

### HAURTXOEN ZERBITZUA

Zerbitzu hau, larunbat goizetan ematen da igerileku txikian, goizeko hamarretatik hamabietara bitartean. Egun, 17 haur daude izena emanda, hauek 3 urtez azpikoak izan behar dutelarik eta bai hala bai bere gurasoekin joan behar dute.

### HAURREN IGERIKETA ETA ZUBIAURRE IGERI ESKOLA

Haurren igeriketa, 3 urte baino gehiago dituzten hurrekin hasten da. Hauek, astelehenetik ostegunera bitartean arratsaldeko 17:30tatik 19:00tara ibiltzen dira eta igerilekuko 3 kale hartzen dituzte, hauek 4 kaleetan banatuz. Beraz, erabiltzaileentzat 2 kale soilik geratzen direlarik.

Garbiago esateko, hauek lehenengo hiru kaleak hartzen dituzte eta hauek, lau zatitan banatzen dira, bi haurren ikastaroentzat uzten direlarik eta beste bi, zubiaurreko igeri eskolarentzat. Masquatro enpresak antolatzen duen ikastaroa da haurren igeriketa. Aldiz, Zubiaurrek antolatzen du igeri eskola. Horregatik banantzen dira kale ezberdinetan, bi "organizazio" ezberdinetatik baitator.

Beraz, Masquatrok antolatzen dituen ikastaro hauetan, 135 haur erregistratu dira, baina badago itxaron zerrenda bat ere, haur asko kanpoan geratzen baitira.

Ikastaro hauetan izen emateko, deialdi bat irekitzen dute, eta gurasoak goizean goiz, kiroldegia ireki baino lehen (goizeko 7etan irekitzen da) ilera luze bat egiten dute beraien haurrak izen eman dezaten, eta deialdiko kide kopuru maximoa betetzen denean beste guztiak kanpoan geratzen dira. Hau esanez gero, kale gehiago edukiz gero, edo igerileku duinago bat edukiz gero, lanpostu berriak sortuko lirateke, haurrik ez zen kanpoan geratuko, eta kirol hau praktikatu lukete. Zubiaurre igeri eskolako kasua aurrerago landuko dut.

### ZUBIAURRE IGERI ELKARTEA

Zubiaurre Igeri Elkartek, aurretik aipatu dudan moduan, ez du nahi inor kanpoa uzterik, eta horretarako, azken urteetako gazteen bilakaera hazi delako, beraien ordutegiengatik balkuntza bat ekarri dute, ahal duten moduan egokiz igerilekura eta gazteen ordutegira

eta baldintzetara. Hau horrela izanik, garbiago ikusteko, ondorengo ordutegia dute aurtengo denboraldian:

- Astelehena: bi txandetan banatzen da 18:00-19:45 eta 19:15-21:00
- Asteartea: bi taldetan banantzen dira entrenamenduan zehar 19:00-21:00
- Asteazkena: bi txandetan banatu 15:45-17:30 eta 19:00-21:00
- Osteguna: bi txandetan banatu 18:00-19:45 eta 19:15-21:00
- Ostirala: bi txandetan banatu 15:45-17:30 eta 19:00-21:00

Txanda bakoitzean, igerilekuko bi kale hartzen dituzte, oso murriztuz geratzen delarik, baina beti dago beste ikastaroren bat, beraz, igerilekuko 3 kale hartzen dituzte denek artean eta 2 kale soilik utzi erabiltzeentzat.

### HELDUEN IGERIKETA

Hauek, helduen ikastaroak egiten dituzte, bertan igerian nola egin ikasten dutelarik. Astean 3 egunetan elkartzen dira ordutegi ezberdinetan:

- Astelehena: 9:15-10:15 eta 15:15-16:15 eta 19:15-20:15
- Asteazkena: 9:15-10:15 eta 15:15-16:15 eta 19:15-20:15
- Ostirala: 9:15-10:15 eta 15:15-16:15

Hauek, kale bakarra erabiltzen dute, eta gaur egun 31 pertsona dira ikastaro honetan alta emanda daudenak. Monitoreen ustez, ez da nahikoa kalea bat, eta are gutxiago igerian ikasterako orduan, erritmo guztiz ezberdinak baitituzte.

### AQUAGYM

Kale bakar batean elkartzen dira eta gaur egun 7 pertsonak osatzen dute. Kirol hau praktikatzeko, kale bakar bat nahikoa dutela diote pertsona kantitateari erreparatuz, baina instalazioak ez diete batere laguntzen, kirol hau praktikatzeko baldintza itsusiak baitaude. Gaur egun dugun igerilekua edukirik, bai txikiak eta bai handiak, ez dute kirol hau praktikatzeko sakonera egokia adibidez, neurri egokiak 1,20 eta 1,50 metrokoak baitira, eta kasu honetan, igerileku txikiak 0,55 eta 0,75 metro neurtzen baititu eta handiak, 1,53 eta 2,13 tartean.



## DIBERTSITATE FUNTZIONALA IGERIKETA

Dibertsitate funtzionala dutenek, igerilekuan astearte eta ostiraletan dute beraien ordu-  
tegia ezarririk, asteartean arratsaldeko 19:00-20:00 eta ostiraletan 15:30-16:30 eta  
17:30-18:30 dutelarik. Hauek, momentuan, kale bakar batean ongi moldatzen direla di-  
ote, baina beste hainbat ikastarorekin elkartzeko dira eta erabiltzaileentzat 2 kjale soilik  
uzten dira, ia beti txikitxo geraturik igerilekua.

## ESKOLETATIK JOATEN DIREN HAUR NAHIZ GAZTETXOAK

Astelehenetik ostirala joaten dira ikasturtean zehar, maila guztietako haurrak, goizeko  
9etatik 12:30 arte eta arratsaldeko 15:30etatik 16:30 arte, kale soil bat hartzen dutelarik  
astean 400 haur erregistraturik.

### 5.5 Triatlói taldea

2018ko urte honetan, Azkoitri izeneko Azkoitiko Triatlói Taldeak, bere 25 urteurrena os-  
patzen duela aipatu du Aitor Tertziok, Talde honen "gidaritza" ematen duen mutilak  
gaur egun. Triatlói kluba den aldetik, hauek ere igerilekuko erabiltzaile dira ireki zutene-  
tik, eta bertan eman diren aldaketen berri dute.

40 dira taldea osatzen duten kirolariak gaur egun, baina horietatik gutxi gora behera 15  
pertsonek izango litzateke Azkoitiko instalakuntzetan entrenatzen dutenak, besteak gehi-  
enbat Azpeitian entrenatzen baitute. Talde honetan gainera badaude kasuak, Azpeitiatik  
gure herria den Azkoitiara bizitzera etorri direnak, eta igerilekuan dagoen egoera dese-  
rosoa ikusirik, berriro ere Azpeitiara itzuli direnak.

Tertzioren esanetan arabera, igerilekuak dituen dimentsioek ez diete zuzenean eragiten  
beraien talde bezala, ia beti bakarka edo asko jota ere, binaka entrenatzen baitute, be-  
raien ordutegi murriztagatik eta praktikatu behar dituzten 3 kirolak antolatzerako or-  
duan zailtasunak ekartzeko dira. Nahiz eta hau horrela izan, kale gehiago izanez  
gero beraien errendimendua nahiz entrenamenduetako kalitatea handiagoa izango zela  
onartu du, kale gehiago izanez jende pilaketa ekidindo baitzen, batzuek bat arratsalde ama-  
ieran izaten diren arazoekin, kale bakoitzean 4-5 pertsona izanik erritmo guztiz ezberdi-  
netakoak, ezinezkotzat sortzen delarik beraien errendimendua.

Batzuetan gainera, jendea zain egotera iritsi dela ere onartu du, ezin baita kale batzue-  
tan sartu, eta besteei estorbu egitea baino nahiago izaten baitu jendeak zai egon, edota  
zuzenean etxera edo beste zerbait egitera joan. Gainera, beraien kasuan, hiru kirolak

entrenatu behar dituztenez, zailagoa izaten zaie entrenamenduen ordutegiak antolatzeari, ez baitakite zer aurkituko duten igerilekura joanez gero, horrela beraien 3 kirolerako entrenamendu erritmoa etenaz.

Hau horrela izanik, Azkoitirik ez du kale bat heurenentzat eskatzen, Azkoitian entrenatzen duten 15 pertsona asko izanik, bakoitzak bere ordutegia ezberdinarekin, ezingo bailukete antolaketa batetara iritsi guztiak. Esan beharra dago duela urte batzuk saiatu izan zirela kale batzuk beraientzat eskatzen, larunbat goizean goiz zehazki, guztiak batera entrenatu zezaten, baina ezinezkotzat jo zieten, kale bakoitza ordaindu beharrean agertu baitziren, eta ez prezio baxua gainera.

Beraien egoera hau behaturik, aurretik aipaturiko master talde baten beharra begi onez ikusten dutela aipatu dit, talde hau sortzen den momentutik talde giroa eta entrenamenduak aurrera eramateko espazio nahiz erritmo ezberdinak egongo baitira, ondorio bezala elkarrekin entrenatzeko parada izanik.

Azkenik, aipatu duenez, taldeko gehientsuenek ez dute beren teknika hobekuntzarik jasotzen. Sarri haurtxoak zirenean ikasi zutenarekin ibiltzen baitira edota baita euren kabuz egunak joan egunak etorri ikasitakoarekin. Gainera, kasu asko omen daude taldean, beste kirol batzuetatik (atletismoa, ziklismoa...) etorri diren kirolariena, eta igeriketa beraien ahulgune bezala identifikatzen dutenak. Master taldea, adibide batez, ongi etorriko litzaieke berauei, bertan teknika ere ikasteko parada baitago.

Triatloi munduarekin amaitzeko, 2018ko urtarrilaren 5ean Jorge Alkorta (Azkoitia, 1950) azkoitiarra elkarrizketatu zuten. Honek, 2017ko Azkoitiar kirolari onenaren saria jaso zuen, bere bizi guztiko ibilbidea goraiatzeko asmoz, 300 triatloi, 40 maratoni eta ironman bat egin baititu.

Adibide gisa, elkarrizketa honen galdera batean, aurretik aipatu den Instalakuntza Duinak Orain plataformak 2.000 sinaduratik gora lortu dituela igerilekua handitzearen alde eta, ea zer deritzon galdetu diete. Eskarmentu handia duen gizon honen erantzuna garbia izan da. Berak, hasiera-hasieratik dagoela arazo hau azpimarratu du. Duela 25 urte guraso batzuek elkartu eta Zubiaurre I:E sortu zutela dio, hasiera batean dozena bat igerilari elkartu zirelarik. Gaur egun ordea, ehundik gorako zifra dagoela esan du eta nahiz eta orduak eta kaleak banatu, ezinezkoa dela azpimarratu du igeri modu egoki batean egitean.

Aire libreko igerilekuak egin aurretik, udaletxera bueltaka ibili zirela aitortu du elkarrizketa honetan, hamaika aldiz esan zitelarik estaltzeko aukera zegoen eta 50 metro luze duen igerilekua egin zezaten, horrela udan aisialdirako eta neguan entrenatzeko balioko zuena, baina beraien lan eta esfortzu guztiak alferrikakoak zirela amaitzen du.

## 5.6 Azkoitiko Udala

Beste eragileetan sarturik, argi eta garbi dago gehien eragiten dion, eta beti eragingo dion faktore garrantzitsu bat Udala izango dela, berak baitu indar gehien igerilekuaren egoera kudeatzeko orduan. Hau horrela izanik, Azkoitian behar hau zegoenean, hauek, ez zuten nahi onartu hasiera batean, eta Instalakuntza Duinak Orain plataformak erabiltzen zuen izenari ere aurka egiten zioten, esanez Azkoitiak zituen Instalazioak duinak zirela eta ez geundela Afrikako herrialde batean.

Denbora aurrera joan ahala, IDOk egin zuen sinadura bilketa eta gero, eta herriaren babes guztia zutela ohartu zirenean, orduan hasi ziren beraien txipa aldatzen, eta IDOrekin elkarlanean aritzeko konpromezu batetara iritsi ziren, eta bien artean aurrera eramaten hasi ziren egun zegoen egoera. Sinadura bilketa ere bien arteko konpromezu eta lotura bat bezala aurkeztu zuten azkenean herriaren aurrean, eta pausoka-pausoka bien arteko elkarlanean hasi ziren, igerileku berri baten proiektuaren lehen pausoak ematen. Hau horrela izanik, IDO taldea ari da martxan eta bera ari da sokatik tiraka, udaletxearen laguntzaz, baliabideak aztertuz eta momentuan egiten ari diren ekintzak eginez.

Hainbat bilera izan eta gero udaletxearekin, azkenik behar bat dagoela ikusi zuten eta aurreproiektu bat gauzatu zuten, igerilekuaren inguruan hainbat alternatiba aurkeztuz eta estali gabeko igerilekuan ere erreformak planteatuz. Honekin hainbat aukera baztertzea lortu izan da, eta dagoen egoerari aurre egiteko moduak planteatu.

Bidea luzea izan den arren, azkenik udaletxeak konpromezu handiago bat hartzea erabaki zuen, eta beraiek konprometitu ziren, 2019ko maiatzean berriz ere udaletxeko lehendakaritza ateratzen bazuten, igerileku berri baten proiektua egingo zutela eta obren lizitazioa lortuko zutela.

Baina guztia ez da positiboa, Azkoitian beste 2 proiektu "potol" baitaude gaur egun esku artean, hauek ere diru partida handiak eskatzen dituztelarik. Beraz, honek bere zailtasunak ekarriko ditu finantziarioa lortzerako orduan. Horregatik da garrantzitsua IDO eta udaletxea aztertzen ari diren Foru Aldundiko kirol instalakuntzetako ematen dituzten diru laguntzak izatea, hauek 2020 urtean aterako direlarik. Gainera, orain arte eman dituzten irizpideak jarraitzen badituzte, Azkoitiko herriak diru laguntza handiena (600.000€) jasotzeko hautagai nagusienetakoa da. Honekin, ateak asko zabaltzen dituela erabat argi dago.

Oraingoz ordea, lanean jarraitu beharra dute bi taldeek proiektu hau aurrera eramateko helburuarekin. Hala ere, orain arte lortu denarekin egin beharko dute lan, eta loturiko guztiari heldu eta ahalik eta etekin handiena atera behar diete bi taldeek, inbertitu den

diru kantitatea ere ez baita txikia izan aurreproiektu eta azterketek eman dutenekin. Gainera, hurrengo urtean udal talde bera ateratzen bada alkategai, beste 200.000€ ko diru partida bat erabili beharko du proiektua gauzatu eta obren lizitaziorako.

## 5.7 Azpeitiako Kirol Patronatua eta Kirol Zinegotzia

Diagnostikoarekin jarraitzeko eta ahalik eta ikuspegi zabalena lortzeko asmoz, ondoko herria dugun Azpeitiako Kirol Patronatuko zuzendari den Ina Sagarzazu eta Kirol Zinegotzia den Estitxu Elduaienekin elkartzea lortu da, herri antzekoak izanik, bai populazio aldetik baita gustu aldetik ere, beraien azken urteak erreparatzeko asmoz, eta Azkoitiarekin alderatuz, isla garbi bat ikus dezagun, Azkoitiarrontzat, alboko herria adibide garbi bat baita instalakuntza aldetik egin diren berrikuntzekin.

Aurretik aipatu bezala, populazio aldetik antzekoak dira, datu bezala, Azpeitiako herriak 14.800 biztanle inguru dituelarik, eta nireak, 11.800 inguru erroldaturik, 3.000 biztanleko aldea egonik bata eta bestearen artean. Hori horrela izanik, kirol instalakuntzetan ere aldeak txikia izan beharko luke.

Bilera hasi bezain pronto, mahai gainean hainbat datu aztertu dira. Adibidez, beraien bazkide zenbakien gorakada, gauzak ongi egitearen seinale direnak. Esaterako, 1998 urtean, 3.500 herritar ziren kirol instalakuntzetan izena emanda zeudenak. 2002. Urtean aldiz, izugarritzko hazkuntza eman zen, estali gabeko igerilekuak egin baitziren, eta zifra hau, 1.700 bazkide gehiagotara igo zen, guztira 5.200 izatera iritsi arte.

Esan beharra dago, Azpeitian, Azkoitian bezala, estali gabeko igerileku kuboa egiteko proposamena zegoela, eta beraiak, ludiko nahiz kirola egiteko bezala eraiki zuten, bi zatia asetzeko asmoz. Zati batean, ludikoa bilakatuz, eta bestea 4 kaleko igerileku bat eginez, denborarekin estaltzeko asmoz.

Gauzak horrela, herritarrek begi onez ikusi zuten eta 2009 urtea iritsi zenean, 4 kale horiek estaltzeko proiektua abiatu zuten, 2010 urtean barruko igerilekuan erreforma txiki bat eginez, 10 kale izatera pasatu zelarik Azpeitiako herria. Bazkideetan ere hauteman zen kudeaketa onaren emaitza, ia beste 800 bazkide gehiago jazo baitzituen, 5.900era iritsiz. Gaur egun, 6.500 bazkide dira alboko herrian, Azkoitiko herriak dituen bazkideak bikoiztuz.

Arrakasta honen arrazoi garrantzitsuena, biek aho batez azpimarratu dutena, berrikuntzetan oinarritzea izan da. Sekula ere ez omen dute zerbait egiteko eskaera formal bat jaso, soilik egunerokotasuna behatzea omen da estrategia, eta jendeak behar duena martxan jartzea.

Azpimarratzekoa da Azpeitiako kiroldegian, Azkoitian erroldaturiko 117 bazkide dau dela. Alderantziz, Azkoitian soilik 31 izatera heldu garelarik.

Berrikuntzen ildoari jarraiki, Azpeitiako instalakuntzetan hainbat nobedade eman dira azken urteotan. Taula honen bidez, garbiago ikusiko dugu hauek egin duten kirol inbertsioaz:

Taula 16: Azpeitiko igerilekuetan eman diren berrikuntzak eta zenbatekoak		
URTEA	ZENBATEKOA €-tan eta DIRU-LAGUNTZAK	ZERTARAKO?
2012	680.000€ (Foru Aldundiak 340.000€ ko laguntza)	Igerilekua estaltzea eta barruko igerilekuaren berrikuntza lanetaako
2014	1.600.000€ (Foru Aldundiak 550.000€ ko laguntza)	Aldagela berriak, Gimnasio berria, gela berriak, irisgarritasunaren hobekuntza
2017	1.300.000 €	Hormen isolamendua, Plaka fotoboltaikoak, ur hoditeria aldatzea, Kiroldegiaren alde zaharrareko aldagelak, eta igerilekuko sarrera hobekuntza
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.580.000 €</b>	

Iturria: Azpeitiko Kirol Patronatua

Garbi ikusten da 6 urteren buruan 3,5 milioiko inbertsioa egin dutela kirol instalakuntzetan, eta zati handi bat igerilekua hobetzeko obretara eraman dutela, hala nola, igerilekua estaltzeko, barruko igerilekua berritzeko, aldagela berriak jartzeko, irisgarritasuna hobetzeko....

Atal honekin amaitzen joateko, egin dituzten berrikuntzen balorazio bat eskaturik, eta hauek guztiz positibotzat jo dituzte egin dituzten inbertsioak. Inbertsio altuak direla adierazi dute, baina honek ekartzen duen onura soziala eta jendearen ongizatea ere handia dela diote, eta merezi duela horrelakoak egitea, baita igeriketaren afizioa ere handitzen delako.

Azkoitian gertatzen ari dena azaldutakoan, begi oso onez ikusi dute bertan ere berrikuntzak egin behar direla, eta euren ustez beharrezkoa dela zerbait egitea esan dute. Gainera, inguruko herrietako igerilekuetan ere geroz eta berrikuntza handiagoak egiten ari direla azpimarratu dute, eta Foru Aldundiak ere laguntzak ematen dituela horiek gauzatzeko, beraien kasuan izan zen bezala.

## 5.8 Elgoibarreko Udal Kirol Patronatua

Elgoibarreko herriaren Udal Kirol Patronatuko zuzendaria den Ramon Mujikarekin ere hitz egitea lortu da, herri hau ere Azkoitiaren antzekoa baita bai populazio aldetik, baita kultura eta kirol aldetik ere. Baina berarekin kontaktuan jarritako unean, denboraz larri zebilela eta ez zuela beharrezkoa ikusten elkartzea esan zuenez, berak korreo bidez bi-

dalitako informazioan soilik oinarritu behar izan dut atal hau egiteko, hainbat datu interesgarri aipatu dituelarik, emailez bada ere. Azkenik, telefonoz ere hitz egiteko parada izan dut, gehiago sakontzen lagundu didalarik.

Elgoibarren, 2010ean herriko kirol eragile desberdinekin (kirol elkarteak, ikastetxeak, Patronatuko bazkideak, monitore eta langileak, ikastaroetako partaideak, instalazioen erabiltzaileak, jubilatua...) partaidetza prozesu bat ireki zuten, taldeka 4 saio antolatu zituztelarik. Prozesu horretan etorkizunean herritarrek, eragileek, ze eratako instalazioak eta beharrak behar zituzten jaso zuten, beraien eskariari erantzuteko asmoz, eta herriak behar zuena ikusteko asmoz.

Krisi garaia harrapatzen zuenez, ezin izan zuten beraiek nahi zuten erritmoan joan, baina udalaren egoera ekonomikoa hobetu zenean, kultura arloko zentro bat irekitzeari ekin zioten, egun, obrak amaitzen ari direlarik.

Obra horien amaiera dela medio, talde eragile hartan atera zen beste behar garrantzitsu bati ekin diote, igerilekuaren zabaltzeari, 12 kaleko igerilekua bilakatuz (gaur egun dituzten 4 kale eta alboan, beste igerileku bat eraikiz 8 kaletakoa) eta aldagela berriak ere eraikiz. 2018ko uda baino lehen, proiektuaren lizitazioa martxa jarri zuten, eta orain arkitektura enpresa bat ari da proiektu horren diseinuan, 130.000€ko aurreikuspenak izanik proiektu hau idaztearena, azkenik zerbait gutxiago izango den arren, konkurtsora 3 enpresa atera baitziren eta honen kostua jaitsi baitzen.

Proiektuaren idaztea amaitu bezain laster, igerilekuko obrekin hasteko asmoarekin daude. Esan didatenez, 1.700.000€ko kostua izango du handitze prozesu horrek, eta hau, 2019 eta 2020 urteetako aurrekontuetan sarturiko diru partidekin finantzatzeko asmotan daude, baita Foru Aldundiak eman dizkion 463.000€ horiek ere aprobetxatuz. Kantitate hau, ez zaie asko iruditzen Elgoibarreko Udal ordezkariari, beste herrietan eman diren laguntzekin konparatuz, gutxi iruditu baitzaie.

Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzarik ez dutela espero ere aipatu du telefonoz, IMH makina erramintaren institutuak bere kiroldegia berritzeko egin dituen lanei finantzazioa eskaini baitzien, beraz Elgoibarreko herriari ez dietela berriro ere finantzatzeko aipatu dit.

Honetaz at, 2010ean egin zuten parte-hartze prozesu hori guztiz interesgarria bezala definitu du, bertan jasotako ekarpenak beraien proiektuen erredakzioaren ardatz bilakatu direlako eta herriaren erantzuna jasotzen dutelako. Gaur egun, nahiz eta ez eduki horrelako prozesurik martxan (2010ko prozesuarekin behar guztiak jaso baitzituzten) eta momentuan ez duten asmorik berriro ere beraien herriko kirol eragile desberdinekin biltzeko, ez dute alde batera lagatzen etorkizun batean ere horrelako zerbait egitea.

## 6 Diagnostikoa

Azterketa sakon honen ondoren, Azkoitian dagoen arazoa diagnostikatzeko ordua iritsi da, eta argi eta garbi ikusi da Azkoitiko igerilekuak berrikuntza batzuk behar dituela duen eskari handiari aurre egiteko eta etorkizun hurbil nahiz luzaro batean izango dituen erronkei aurre egiteko.

Orain artekoa laburbilduz gero, hainbat datu interesgarri azaldu dira Azkoitiko herriarenak, igeriketak osasunean dituen onuretan hasiz, guztiz garrantzitsua baita honek izan beharko lukeen oihartzunaz, igeriketa baina kirol osoagorik ez baitago, eta hainbat gaitasun sendotzeko edota ekiditeko asmoz ere praktikatzea gomendatzen baitute adituek, aurretik aipaturik dagoen bezala. Ondoren, populazioa eta honekin datorren zahartzeari erreparatuz, igerilekuak dituen bazkide kopuruak adieraziz eta bertan biltzen diren erabiltzaile kopuruak adieraziz egunero eta astez aste. Azkenik, inguruko herriekin eginik konparaketa txiki bat, bertan dauden kale kopurua adieraziz eta zenbateko biztanleria duten, baita bertako igeriketa taldeek ere (izanez gero) zenbat pertsona biltzen dituzten.

Irisgarritasunak ere berebiziko garrantzia duela ere garbi ikusi da, igerilekuaren antolaketa zein masifikaturik dagoen eta igerileku berriak nolakoa izan beharko lukeen ere aztertutik geratu da, baita honek ekarriko lukeen onurarekin ere. Konparaketa txiki bat ere egiteko aukera izan da, herrian dauden kirol klubekin eta hauek dituzten instalakuntzekin ere.

Honen ondoren, eragileei ekin zaio eta honen analisia ere sakona izan da, Instalakuntza Duinak Orain! plataformatik hasita, Zubiaurre I.E sakon aztertutik eta beraiek dituzten behar nahiz gabeziak ikusi dira, baita beraien egoera finantzarioa eta igerilarien egoera ere. Bertan sakondu nahi izan da gehiena, hauek baitira igerilekuaren inguruan jasotzen ari denaren islara garrantzitsuenetako bat. Geroago, Igeriketa Master taldeari ere erreparatzeko aukera izan da, hauek ere zuzen-zuzenean baitaude loturik igerilekuaren egoerarekin. Ondoren, Masquatro enpresa pribatuaren inguruan jasotzen diren ikastaro eta mugimenduak zehaztu dira, garbi ikusirik hauek ere kale kopuru handiago bat beharko luketela. Triatloi taldearekin jarraituz, hauek ere zailtasunak dituztela ikusi da, kale gehiagoren beharrean geldituz beraien kiroleko lehen atala ongi entrenatzeko asmoz.

Amaitzen joateko, Azkoitiko udalaren bilakaeraz mintzatzea izan da helburu, ondoren Azpeitiako Kirol Patronatuaren ordezkari den Ina Sagarzazu eta Kirol zinegotziarekin hitz eginik, hauek baitira Azkoitiko herriarentzat erreferentzia izan daitezkeen igerilekuak kudeatzen dituztenak, eta Azkoitia eta Azpeitian igerilekuan inbertitu denaren aipamenak ere egin dira, zein alde dagoen adierazteko asmoz. Ondoren, Elgoibarren eman den mugimenduaren zati txiki bat ere ikusteko aukera izan da.

Hau guztia aztertu ondoren, argi eta garbi geratzen da gaur egun zein nolako arazoa dagoen Azkoitiko herrian igerilekuari erreparatzen badiogu. Ehundaka eta ehundaka herritar dira egunero kirol hau praktikatzea nahi dutenak, eta baldintzak ez direlako onenak agian ezin dutenak praktikatzen. Beste horrenbeste dira egunero praktikatzea nahi edo behar dutenak, eta egiten dutenak gainera, baina ez baldintza onetan, eta ahal duten moduan egiten dutenak, igerilekuaren neurri txikira moldatu direlako.

Bestalde, hainbat dira igerilekura ezin joanda geratzen direnak edota hainbat zailtasun dituztenak uretara iristeko, eta hauentzat ere irisgarritasunaren aldetik hainbat neurri berri hartu behar direla begi bistakoa da, gaur egun dagoen egoerarekin ezin baitute duintasunez iritsi kirol hau praktikatzen.

Hau esan eta gero, garbi geratzen da Azkoitiko igerilekuak aldaketa batzuk egin behar dituela ahalik eta azkarren oso txiki eta desegoki geratu baita. Beraz, diagnostiko honen ondoren, hainbat proposamen emateko asmoz, arazo honi irtenbidea emateko asmoz, herriaren eta erabiltzaileen hobe beharrez.

Baina amaitu baino lehen, aurretik aipaturiko eragileekin taula hau aztertzea garrantzitsua izango litzateke. Bertan, eragileak beraiek agertzen dira, eta zein ondorioetara iritsi diren ere garbi agertzen da. Honekin, diagnostikoa amaitutzat eta arazoa ondo adierazi delakoan, horrela, proposamenetara helduz.

Taula 17: Eragile bakoitzaren laburbilketa	
ERAGILEA	ONDORIOAK
Instalakuntza Duinak Orain	Igerileku berri baten beharra nahitaezkoa ikusten dute dagoen arazoari soluzioa ematerako orduan
Zubiaurre I.E	Gaur egungo igerilekua oso txikia gelditu dela argi ikusten dute, eta kale gehiagoren beharra dagoela, beraz, igerileku berri baten alde daude
Master Taldea	Talde hauxe bera bi zatitan banatzen da dagoeneko ongi entrenatu ahal izateko, eta kiroldegiaren berezko orduetatik kanpo. Ezinbestekoa kale gehiago dituen igerileku bat izatea, beste hainbat ordu desberdinetan ere entrenatu ahal izateko
Masquatro	Enpresa honek dituen ikastaro guztiak ahalik eta efizientenak izateko asmoz, behar-beharrezkoa du igerileku berri bat
Azkoitri Triatloi Taldea	Talde honek ere talde bezala entrenatzeko kale eskaera egin zuen baina ez zitzairen kalerik eman, ez batzuegoen lekurik. Beraz, begi onez ikusten dute igerileku berriaren sorrera
Azkoitiako Udala	Denbora aurrera joan den ahala, beraiek ere ikusi dute berebiziko beharra dagoela igerilekuaren handitzean, beraz, hurrengo hauteskundetan beraiek irabazten badute, konpromezua harturik dute jada proiektua gauzatzeko eta obren lizitazioa lortzeko
Azpeitiako Kirol patronatua eta Kirol Zinegotzia	Hauek ere kirol inbertsioan sinesten dute eta adibide garbiak dira. Handitzearen aldekoak dira

Iturria: Ikasleak egina



## 7 Proposamenak

Aurretik eginiko analisi horren guztiaren ondoren, jada, diagnostikaturik geratu da Azkoitiko herriak duen arazoa zein den, eta orain, ez da besterik falta arazo honen guztiaren proposamen edo soluzio posible batzuk ematea, edota zein beste alternatiba eduki ditzakegun igerilekua deskargatzeko ideia ematen dutenak, edota gaur egun dagoen sozietate likido hau oinarri bezala harturik, laneko desplazamendu anitzak kontuan izanik, jendearentzat igerilekura joatea errazteko neurriak hartzea.

### 7.1 Foru Aldundiaren diru laguntzak

Horretarako, proposamenekin hasi baino lehen, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017an eman zituen diru-laguntzak aipatzea ere garrantzitsua da, proposamen hauetako batzuk behintzat inbertsio handikoak baitira, eta diru-laguntzak guztiz garrantzitsuak izango baitira proiektu hauek gauzatzeko orduan udalarentzat.

Foru Aldundiak, hainbat laguntza argitaratzen ditu hainbat urteetatik behin, eta 2017ko datuak lortu dira, Gipuzkoa mailan zein herriko igerilekuei eman dieten diru laguntzak eta zenbatekoak, baita zein diren beraien proiektuak ere. Gainera, 2020. urtean berriro irekitzeko asmoa dago diru laguntzen atala, kirol instalakuntzei dagokionez, eta bertan 600.000€ arteko laguntzak egongo dira, Azkoitiko herria hautagai izanik diru kantitate hori jasotzera, proposamenaren neurria handia baita.

Taula 18: Foru Aldundiak 2017an igerilekuentzat eman dituen diru-laguntzak		
HERRIA	KOPURUA	ZERTARAKO?
OÑATI	453.920 €	Kiroldegi osoa berritu behar dute. Igerilekua 5 kale izatetik 8 izatera pasatuko da
LEGAZPI	116.122,49 €	Kanpoko igerilekua neguan ere erabiltzeko egokitzapena. 11 kale izango ditu hamendik aurrera
ELGOIBAR	463.760 €	4 kaletik 6 kalera pasatu da igerilekua
URRETXU	217.880 €	Igerilekuaren birgaitzea (estali gabeko igerilekuarena)
ARRASATE	67.500 €	Igerilekuaren klimatizazioa
AZKOITIA	44.957,38 €	Elkargune GUZTIKO hobekuntzak

Iturria: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala. Kirol Ekipamenduen diru laguntzak

Taula honetan agertzen diren datuak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Kirol ekipamenduen diru laguntzen ataletik ateratakoak dira, bertan, Gipuzkoak bost herriri diru laguntzak eman dizkietela agertzen delarik. Horiek, Oñati, Legazpi, Elgoibar, Urretxu eta Arrasate dira.

Oñatiren kasuan, 453.920€ jaso dituzte, kiroldegi osoaren berrikuntza dela medio. Gaur egun duten igerilekua 5 kaletakoa da, baina proiektu hau eta gero, 8 kale izatera pasatuko da.

Legazpiri erreparatzen badiogu, hauek 116.122€ko diru sarrera jaso dute. Diru hau, estali gabeko kanpoko igerilekua estaltzeko erabiliko dute, horrela, neguan estalirik izan dezaten eta 11 kale izatera bihur daitezten.

Elgoibarren kasua aztergai, hauek izan dira diru gehien jaso dutenak Gipuzkoa mailatik, 463.760€ hain zuzen ere. Gaur egun, 4 kaletako igerilekua dute, baina proiektu berri honekin, 6 kale izatera pasatuko dira.

Urretxuko herriak, 217.860€ jasoko ditu, igerilekua birgaitzeko asmoarekin, baina hau, estali gabeko igerilekuetarako izango da.

Azkenik, Arrasateren kasuan, 67.500€ jaso behar dituzte, egun duten igerilekuaren klimatizazioa dela medio.

Azkoitiaren kasuan aldiz, soilik 44.000€ inbertitu dituzte azken 6 urteetan, datuak berarekin bakarrik hitz egiten dute. Esan bezala, azken urte hauetan diru kantitate baxua jaso duenez, hurrengo ekitaldian hautagai on bat izango litzateke Azkoitia diru partida potol bat jasotzeko eta proposamen edo irtenbide duin bat aurrera atera ahal izateko (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017).

## 7.2 Lehen proposamena: Gaur egungo kiroldegian beste igerileku baten sorrera

Lehen proposamen honekin, lortzea nahi dena, gaur egun kiroldegia dagoen lekuan beste igerileku berri bat egitea da, dauden instalazioei probetxua ateraz, herriaren erdigunean kokapena edukiaz, horrela kiroldegiaren erabilera aprobetxatzeko asmoz, eta langilean, aldagelen,... kostu finkoen igoera ekidingo luke.

Hau horrela izateko asmoz, bururatzen den gauz bakarra, gaur egun igerilekua dagoen lekutik gertuen egitea da, bestela, kiroldegian ez baitago beste lekurik Gipuzkoako Federakuntzak jartzen dituen gutxiengo oinarrietara iristen direnak. Gainera, gaur egungo

igerilekuaren alboan eginez gero, bere maila berdinean geratuko litzateke igerileku berria, horrela, bi igerilekuetara sarbidea izanik. Igerileku honen alde on eta txarrak aurreago sakonduko ditut.

Aurretik esandakoari erreparatuz, gaur egun beheko irudian agertzen den bezala egongo litzateke kiroldegiaren instalakuntza guztia.

Irudia 2: Elkargunea goitiko bistatik



Iturria: Google

futbol zelaiaren alboan eta errepide aldera dagoen blokea izango litzateke gaur egungo igerilekuaren kokapena, bloke txikiena alegia. Gainerako blokean, rokodromoa, saskibaloia eta futbito kantxak... egongo litzateke. Beraz, lehen proposamen honen ideia, futbol zelai artifiziala dagoen lekuan igerileku berria eraikitzea izango litzateke, futbol zelai bere aurrean dagoen saskibaloia kantxetara mugituz. Horrela, igerilekuarekin itsatsirik egongo litzateke igerileku berria, bloke bakar batean elkartuz.

Agian zuen buruetara etorriko den lehen galdera izango da honakoa: eta zer gertatzen da saskibaloiko zelaiekin? Bada, gaur egun ikusirik bere erabilera ez dela handia, ia inor ez delako bertan ibiltzen, horiek kentzea eta herriak etekina aterako dieten instalakuntzak izatea da helburu. Horrela, futboleko zelaia ezin da kendu, Anaitasuna futbol taldeak ere erabiltzen baititu instalakuntza horiek, beraien talde gaztetxoek bertan entrenatzeko. Beraz, igerilekua eta futbol zelaiak berebiziko garrantzia dute kiroldegiaren goiko partean, honekin, saskibaloiko kantxa kenduz. Gainera, orain dela urtebete eraiki zuten saskibaloia kantxa berriz barruan, eta instalakuntza bikainak dituzte gaur egun.

Hau guztia esanda, horrela geratuko litzateke lehen proposamen honen irudia. Gaur egun dagoen blokeari itsatsirik igerileku berria, eta saskibaloiko kantxen ordez, futboleko zelaia. Tartean geratzen diren padeleko pistak bere horretan jarraituko lukete.

### Irudia 3: Elkargunea, rosez lehen proposamena. Igerileku berria joango litzateke



Iturria: Ikasleak egina

Honen alde onak aipatzerako orduan, nagusiena, herri erdian egoten jarraitzen duela da, gaur egungo kiroldegiarekin batera, honekin pertsonal gastuak adibidez, berdinak izaten jarraituko luketela azpimarratuz. Gainera, beste igerilekuarekin batera egongo litzateke.

Aipatzekoa da baita ere, irisgarritasun arazoak ekidingo zirela igerilekua bertan eginez gero, kiroldegiko beheko solairutik igerilekura igogailua baitago, eta ahulki eramangarriak ere bai igerileku batera eta bai bestela joan ahalko baitu horrela. Gainera, igogailuak, bi igerilekuen tartera eramanago zuen, alde batera edo bestera hartzeko aproposa izanez gero.

Kokapen honekin, gaur egungo igerilekua klimatizatze makineria ere igerileku berriarentzat modukoa izango litzateke, beste bat erosteko gastuak ekidinez horrela.

Azkenik, azpimarratzeko asmoz, kokapenari dagokionez, eta gainera, 8 kaleko igerilekua izango zela ikusirik, txapelketak ekartzea aproposa izango litzateke bertara, horrela, aurreko puntual aipatu dudan bezala, herriari ekarriko dion poza nahiz kultura eta ekonomia hobekuntzak gehitu behar direlarik.

Inguruko beste hainbat kiroldegian prezioei erreparatuz, dimentsio berdineko igerilekuak egin izan dituztenean, instalakuntza honen batz besteko kostua 1.500.000€ koa izango litzateke, eta hau egin ahal izateko, aurretik egin beharko den proiektuaren kostua 150.000€

Alde txarrei erreparatuz, ez zaio alde txar handirik duenik ikusten hau egiteari. Egia da, saskibaloi pistak desager araztea ekarriko lukela, baina ez da horrenbestearainoko galera, ez baitu erabilera handirik honek.

### 7.3 Bigarren proposamena: Azpeitiako kiroldegiarekin elkartuz, Bi herrietako erabilera librea kiroldegietan, Azkoitia-Azpeitiako kiroldegien patronatua sortuz

Betidanik izan dute Azkoitia eta Azpeitiako herriek beraien arteko lotura, bai kultura aldetik berdintsuak direlako, baita herritarrak ere alboko herrira joaten direlako lanera. Hau esanda, ehundaka dira egunero kotxea hartu eta beste herrira joaten direnak lanera.

Gaur egungo egoera ikusirik, lujo bat dela alboko herrian lan egitea esan beharra dago, baina egun osoa lanean pasatu eta gero, edota eguardietako atsedetak kontuan izanik, hainbat dira kirola egiteko aprobetxatzen dutenak. Baina sarri, berriro ere lantokitik atera eta zeure herrira joan etorria egiteak igerilekura joateko zailtasunak ekartzen ditu, denbora galtzen baita, egun berebiziko inportantzia duenak honek.

Arazo hau ikusirik, eta hainbat hiritan egiten dena kontuan hartuz, zergatik ez bi herrietako kiroldegiak batu, eta kirol txartel bakarrarekin bi kiroldegietara sartzeko parada izan? Hau horrela, jendeak posible izango luke beste ordutegi batean ere igerilekura joatea, eta horrela saturazioa ekidingo litzateke, gainera, aukera izanik alboko herriko instalazioak erabiltzekoa ere.

Kasuak kasu, Donostian badago bertako kiroldegi guztietako patronatua eraikirik, eta txartel bakarrarekin Donostia guztiko instalakuntzetara sartzeko aukera dute herritarrek. Proposamen hau antzekoa da, baina herri bateko kiroldegi guztien batura izan beharrean, bi herrietako lotura sortuaz.

Donostia adibide gisa aipatu denez, bertan bazkide egiteko modu eta kuota desberdinak hartu dira konparazio gisa, bertan oinarritzea ere ongi egongo litzateke eta.

Taula 19: Kirol Txartel motak, deskripzioa eta kuotak

KIROL TXARTEL HARPIDETZA MOTAK	DESKRIPZIOA	SARRERA KUOTA (MATRIKULA)	URTEKO KUOTA
KT adingabea	2003. urtean eta ondorengoetan jaiotakoak.	23,30 €	80,15 €
KT gaztea	2002. urtean eta aurrekoetan jaiotakoak, 1995. urte arte.	37,40 €	124,70 €
KT ezgaitua	65% edo hortik gorako ezgaitasun gradua dutenei edo, bestela, A nahiz B mailako edo 7 edo hortik gorako puntuazioa mugikortasun mirritua dutenei zuzendua.	sarrerarik gabe	80,15 €
KT heldua	1994. urtean eta aurrekoetan jaiotakoak.	50,05 €	198,90 €
KT 65 plus	1953. urtean eta aurrekoetan jaiotakoak. Honen onuradunek 17:00tik aurrera sarrera mugatua izango dute instalazio guztietan.	20,65 €	117,85 €
Familia KT 65 plus	Familia osatzen duen bikoteko bi kideak, eskontza-lotura nahiz izaztekoa izan, sar daitezke harpidetza mota honetan, beti biek 1953. urtean edo aurrekoetan jaiotakoak badira. Harpidetza honen onuradunek 17:00etatik aurrera sarrera mugatua izango dute instalazio guztietan	20,65 €	208,50 €
Familia KT	Famili harpidetzan honakoak sar daitezke: familia osatzen duen bikoteko bi kideak, ezkontza-lotura nahiz izaztekoa izan, eta 2002. urtean eta ondorengoetan jaiotako seme-alabak; eta 2001 eta 1995 urte bitartean jaiotako seme-alabak ikasten ari badira edo langabezia izanik gurasoen etxean bizi badira. Famili harpidetza honetan, adin mugarik gabe egon ahal izango dute %33eko ezgaitasuna egiaztatzen duten seme-alabek.	81,80 €	341,70 €
Familia Ugarien KT	Harpidetza mota honetan sartu ahal izango dira Familia Ugarien Tituluan azaltzen diren pertsona guztiak.	81,80 €	268,60 €
Gizarte KT	Donostian errolaturik dauden pertsonak (errolatze-agiriaren bidez egiaztatu beharko da) eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (LANBIDEAK emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da), edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradunak direnak, alta eskatzen den momentuan.	sarrerarik gabe	23,70 €

Iturria: Donostiako Udala

Bi herrien kasuan, prezio horietan oinarritzea posible izango litzateke, edota herri bakoitzak dituen prezioak mantendu. Honek ordea, arazoak ekarriko lituzke, jendea merkeena den lekuan egingo baitzen bazkide, logikoki. Horregatik, bi herrietan dauden prezioak behatu, eta batz besteko bat ateraz, prezio hori finkatzea izango litzateke justuena herritarrentzat, horrela arazo hori ekidinez. (Donostiako Udala, 2018)

#### 7.4 Hirugarren proposamena: Gipuzkoako kiroldegi guztietako erabilera libre a Gipuzkoako Kiroldegien Patronatua sortuz

Azkoitia eta Azpeitia herrien arteko mugimendu arazo berdina aurkitzen dugu ordea Gipuzkoa guztian, jende askok egiten baitu lan Donostian, beraien herrietatik urruti, eta egunero desplazatzen direlarik bertara, bai langile, eta baita gazte eta ikasleak ere, Donostian ikasten baitute askok, beste batzuek Zarautz, Elgoibar, Goierri aldean...

Hau horrela izanik, horrenbeste desplazamendu izanik egunean, denbora asko galtzen du jendeak, eta badago jendea lana edo ikasten duen lekuan egiten dena bazkide, bestela ez baitu denbora nahikoa kirola egiteko eta.

Gaur egungo arazo hau ikusirik, logikoagoa izango litzateke Gipuzkoa mailako patronatu bat sortzea, bazkide prezioak amankomunean jarriz, eta guztiek edozein kiroldegitan sartzeko aukera izanik. Proposamen hau nahiko espezifikoa delakoaren susmoa izan

arren, gaur egungo egoerak bultzatzen duen behar bat badela iruditzen zait, eta horrela hainbat pertsonen beharrak asetzera heldu daiteke.

Honekin, aurretik aipatu den bezala, Azkoitiko igerilekuaren kongestioa jaitsiko litzateke, ordu puntak deuseztatuz, jendeak beste orduak edota beste kiroldegiak aprobetxatuz, eta azken finean, Azkoitiko arazoari partxe bat jarriaz. Hala ere, aukera hau gauzatuko bazen ere, Azkoitiko herriak instalakuntza duinago bat beharko luke, guztion onerako izan dadin.

## 7.5 Laugarren proposamena: Kiroldegi baten sorrera Loiolan

Laugarren eta azken proposamenera helduz, honetan, bi herrien arteko elkarlanean pentsatzea izan da gakoa. Horretarako, bi herriak elkartuz, Azkoitia eta Azpeitia artean dagoen Loiola basilika inguruan kiroldegi bat eraikitzea ongi legoke. Honen zergatiak izugarrizko indarra duela ohartaraztea besterik ez dago, herri hauetakoren batean bizitzeko gero. Bi herri hauetan, kirolaren inguruan izugarrizko kultura sendoa dagoela ohartaraztea erraza da, eta geroz eta gehiago gainera, datorren moda honekin batera.

Hau esanik, ehundaka pertsona ikusten dira egunero Azkoitia eta Azpeitia banantzen dituen bide gorrietan korrikan, pasieran, edota beste hainbat kirol egiten. Ideia hau kontuan hartuz, eta ikusirik zenbat kirolari dagoen, eta zein mailakoak gainera, horrelako kondizioetan entrenatzen eta kirola egiten, zergatik ez, bi herrian ateko elkartasuna sustatu, eta hauei guztiei irtenbidea eman? Zergatik ez beste hainbat hiritan dagoen kirol instalakuntza haundi horietakoren bat hartu, eta bien artean elkarbanatu?

Donostia edota Bilbo bezalako herrietan, ehundaka mila pertsona bizi direla kontuan izanik, eta izugarrizko etekina ateratzen diotela ikusirik instalakuntza horiei, zergatik ez herri hauetan ere inbertsio sozial eta kultural handi bat egin?

Gehitzeko gainera, ikusirik zenbat Azkoitiar dagoen Azpeitia aldean lanean, eta alderantziz, indarra izango lukeen proiektua izango litzateke hau, etxera bidean zenbat jende kiroldegian geratzen dela ikusirik, arrakasta izango lukeen proiektua izango litzateke. Egia da, inbertsioa ere handia eskatzen duela, baina, zein inbertsio izango litzateke hobe, gure osasunean inbertitzea baino?

Hau guztia esanda, Azkoitia, Loiolatik kilometro eta erdira dago gutxi gora behera, eta Loiola, Azpeitiatik kilometro batetara. Hau esanda, Azkoitia-Loiola-Azpeitia formatuko kiroldegia izango litzateke, gutxi gora behera 26.000 herritar inguru bilduko zituen inbertsio soziala.

Argiago ikusteko asmoz, azpian atxikitu da herri hauen arteko mapa bat, non aise ikusten den hiru zonaldeen kokapena (Azkoitian agertzen den puntu urdina gaur egungo kirol-degiaren kokapena izango litzateke).

Irudia 4: Azkoitia, Loiola eta Azpeitiaren kokapenak



Iturria: Google

Ikusten den bezala, Loiola ia erdigunean dagoen espazio zabala izango litzateke, bertan Basilika bat izanik, eta honen inguruan, metro eta metroka dituen lursail ez erabiliak izanik, batzuek Basilikarenak izanik eta beste hainbat jatorri ezezagunekoak. Hau hobeto ikusteko asmoz, Loiolaren zonaldea goitik islatzen duen irudia atxikitzen da, dituen lursail lau horiek hobeto ikusteko asmoz, eta proiektu honen ideia bat bertan egiteko nahiko espazio dagoela ikusaraziz.

Irudia 5: Loiolako zonaldea goitiko bistan



Iturria: Google

Lekua definitu ondoren, kiroldegi horren instalazioak zehaztera ekitea da hurrengo pausoa. Horretarako, aurretik aipatu bezala, herri hauetan dagoen beharrei erreparatzea ezinbestekoa da. Lehenik eta behin, eta beharrik garrantzitsuena Azkoitiko herrian, igerilekuak izanik, lehen proposamenean aztertu den moduan, 8 kaleko igerileku bat izango zen. Honekin, bertako alde on eta txarrak aplikatuz bertara, garrantzizkoa izango litzateke horrelako baten sorrera.

Honekin, inguru hauetan bizi den jendea, eta lanera alboko herrira joaten direnak, erdi bidean izango lukete kiroldegia.

Gainera, nahiz eta herritik zertxobait urrunago geratu, txapelketak antolatzeko ere baliagarria izango litzateke, Loiola inguruko ostalaritza aprobetxatuz, baita dauden hotel



nahiz aterpetxeak ere. Honen aurrekontua ere, lehen proposamenaren berdina izango litzateke gutxi gora behera, hau da, 150.000€ proiektua egitea, eta 1.500.000€ proiektuaren gauzaketak.

Bigarren behar bati erreparatuz gero, honek ere izugarrizko pisua edukiz kirol proiektu honen gauzaketan, atletismoa izango litzateke. Aurretik aipatu bezala, ehundaka jende ibiltzen baita Azkoitia eta Azpeitia lotzen dituen bideetan, baita Azkoitiatik Zumarraga alderako bidean, edota Azpeitia eta Lasao lotzen dituen bideetan ere.

Beraz, hau esanda, atletismoko pistak izango litzateke garrantzia edukiko luken bigarrenengo pausoa. Gainera, Xeye (Azkoitia eta Azpeitiako Atletismo taldea) geroz eta dimentsio handiagoak hartzen ari dela ikusi beharrik ez dago eta hainbat eskaera egin izan dituzte, bai kiroldegian gelaren bat beraientzat edukitzea, edota baita atletismoko pisten irekierari erreparatuz.

Gaur egun, Xeye, Azkoitia eta Azpeitiako kiroldegietan elkartzen da, eta bertatik ateratzen dira kanpora entrenamenduak egitera, sarri baldintza oso txarretan izanik.

Baina atletismoa ez da soilik korrika egitea, honek beste hainbat diziplina ere baditu. Hori dela eta, kiroldegi honetan eraikiko litzateken instalakuntzetan, hauen beharretara egokitzen diren beste hainbat jarduerentzat ere tartea eduki beharko lukete, hala nola, pertiga, harri jaurtiketak... kontuan izanik ez dagoela horrelako instalakuntzarik inguruan, pauso oso handia izango zen bi herri hauentzat aurrera, horrela, erreferentzia bilakatzuz eta kirol honek merezi duen duintasuna emanaz.

Zifretara joanez gero hauek erreparatzeko asmoz, Zaragozan eraiki zen atletismoko pisten zifrei erreparatu daiteke, bertan atletismoko pista izan ezik, pertiga eta bestelako instalakuntzak ere eraiki bai zituzten. Honen aurrekontuari begirada bat botaz, 450.000€ ingurukoa izango litzateke eraikitzea. Horrela, lehentasunaren batuketa eginez, 2.000.000€ko inbertsioa suposatuz, igerileku nahiz atletismoko pistek.

Ondoren, hirugarren proiektu bat heltzeko asmoz, kiroldegi honen hurrengo fasea, futbol zelai natural bat izango litzateke. Honen zergatia garbia da: Azkoitia eta Azpeitiako herrietan, 3. Mailako kirol talde bana dagoenez, eta bakoitzak futbol zelai natural bat izateaz gain, artifiziala ere badu. Baina zein da arazoa? Futbol zelai naturalaren hobe beharrez, soilik astean behin jokatze dagoela bertan, honekin, hainbat entrenamendu ezin eginik bertan eta honen zainketa lanak zailduz.

Hau horrela izanik, artifizialean entrenatzen dute, gainera, artifizialak ematen dituen onurak handiagoak izanik naturalarenak baino. Artifizialaren zabaleran, bi futbol zelai egiten dira, hau da, artifizialaren luzera aprobetxatuz, 2 zelai berri sortzen dira. Bai Azkoitian eta bai Azpeitian. Horrela, Loiolan futbol zelai natural bat jartzen bada bi taldeentzat, hauen gastuak erdi bana geratuko ziren, eta herri bakoitzeko zelai naturalean,

artifizial bilakatzeko aukera egongo litzateke, eta horrela entrenamenduak izateko aukera bikoiztuz eta jende eta taldeen arazoak ekidinez. 2014. urtean Salamancan egin zen belar artifizialeko aurrekontuak hartu ditut oinarritzat, eta gutxi gorabehera zelai bakoitzak 350.000€ izango litzateke, kasu honetan, 2 izango direlarik, hau da, 700.000€ inguruko aurrekontu batekin. (Ayuntamiento de Ciudad Rodrigo, Extremadura, 2017).

Azkenik, herri hauen beste kirol garrantzitsua den saskibaloia aldetik, ez da guztiz beharrezkoa ikusten bertan saskibaloiko kantxa egitea, Azkoitia eta Azpeitiako kantxak inguruko onenatarikoak izanik, ez baitute behar aldaketarik.

Kiroldegi honen azken fasea, gimnasioaren izango litzateke, horrenbeste kirol eta kirolari bertan bildurik, garrantzitsua iruditzen zait gimnasioen bat izatea, beraien beharretara heltzeko asmoz, eta guztia bertan izateko. Aurrekontuen begira egon eta gero, 365.000€ inguru izango litzateke gimnasio baten sorrera izateak (Emprendedores, 2017).

Hau guztia laburtzeko asmoz, gutxi gora beherako aurrekontu bat atera da, kiroldegi honen eraikitzeak ekarriko luken inbertsioa izateko asmoz. Kalkulu hauen ondorioz, 3 bat milioi euroko aurrekontua izan beharko lukete bi herrien artean, hau da, 1.500.000€ inguru bakoitzak: (beraz, Azkoitin igerilekua egitearen prezio berbera izango luke, eta instalazioak askoz ere handiagoak nahiz hobeagoak izango litzateke prezio berean)

Taula 20: Kiroldegi berriaren aurrekontua	
AURREKONTUA	ZENBATEKOA
Igerilekua	1.500.000 €
Atletismoko Instalakuntza	450.000 €
Zelai Artifiziala 1	350.000 €
Zelai Artifiziala 2	350.000 €
Ginmasioa	365.000 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.015.000</b>

Iturria: Ikasleak egina

## 8 Ondorioak

Bidea luzea izan den arren, jada lan guztiaren amaiera iritsi da. Aurretik garbi gelditu da, Azkoitiko herriak baduela kirol instalakuntzen inguruan gabezia bat, non igerilekuaren tamaina nahiz irisgarritasunak ez diren beharko gintuzkeen behar bezalako egokiak.

Ondorio horretara iristeko hainbat eragile aztertu dira, baita herria denboran zehar nola aldatu den eta zein egoeretan dagoen gaur egun ere. Honi bukaera emateko asmoz, hainbat proposamen aztertu dira eta argi gelditu da elkarrengandik osagarriak izatera ere hel daitezela hauek.

Azkoitiko herriak igerileku duinago baten beharra duela argi ikusi den arren, lau proposamenak egokiak iruditzen zaizkit. Lehenik eta behin, 8 kaleko igerilekua kiroldegia kokaturik dagoen lekuan egitea guztiz interesgarria iruditzen zait, horrela herriaren erdigunean izanik eta kirol instalakuntza guztiak elkarrekin izanik. Gainera, aurretik aipaturiko legedietara loturik geratuko litzateke, eta txapelketetarako ere interesgarria izango litzateke.

Honetaz aparte, kiroldegi berriaren ideia ere guztiz egokia iruditzen zaidalakoan nago, nahiz eta inbertsiorik handiena izango lukeen, bi herrien artean banatuko litzateke, horren aurrekontua erdira jaitsiz eta ez izanik horren garestia. Gainera, izugarrizko instalakuntzetan geratuko litzateke, beste inongo herrietan ikusi gabeko kiroldegia izanik. Honen gain, gainera, bi herrien behar guztietara loturik geratuko litzateke, eta beste hainbat kirol ere deskongestioa ekarriko lioke, baita atletismoa bezalako kirol gutxietsia ere bultzatuko litzateke eginiko pistekin, Gipuzkoa mailan ere erreferentzia izatera helduz.

Beraz, etorkizunera begiratuz, proposamen hau guztiz aproposa izango litzatekelakoan nago, bi herriei emango dien bultzada ikusirik, izugarrizko aurrerapausoa izanik.

Azkeneko bi proposamenei helduz, hauek ere deigarriak direla iruditzen zaizkit, herritarren benetako beharretara lotuko bailitzateke proiektu hau/hauek. Desplazamenduak ekidingo lirateke eta baita herritar guztien ordutegien moldaketa ere, denbora hobeto aprobetxatuz, beste gauzentzat gehiago utziz. Gainera, gaur egungo egoera likidoari moldatzen zaiola iruditzen zai(zki)t ideia hau(ek).

Amaitzen joateko, lan hau guztiz interesgarria iruditu zaidala ere azpimarratu nahiko nuke, nire herrian gertatu diren eta gertatzen ari diren mugimenduen berri izan baitu lehen eskutik, eta herritarren beharrei erantzuteko proiektu bat izan baita, herria hobetzeko asmoz eginikoa.

Proiektu honen eraketa momentuan, zorteduna ere sentitu izan naiz sarritan, herriko hainbat eragileen iritzia lehen eskutik jaso baitut, gaur egun zaila baita horren “estudio” sakona egitea herritar soil batek, musutruk. Nire aburuz, proiektu honek herriak duen behar bati aurre egiteko balio du, eta benetako arazoa dagoela ikus arazteko ere ongi dagoela iruditzen zait. Horrela, jada lanaren zati handi bat eginik izanik, puntu honetatik ere lanean has daitezke eragile desberdinak, hasierako zati handi bat eginik izanik, errazago egingo baitzaie sokari tiratzea.

Nahiz eta lana sakon eginik dagoela uste dudana, nire aburuz proposamenetan gehiago sakontzea faltako litzateke, baina lan horrek honen tamainako beste proiektu bat eskatzen duelakoan nago. Hori horrela izanik, proposamen horiek gehiago lantzea egongo litzateke beste proiekturen batean, proposamen oso erakargarriak direlakoaren ustea baitut.

Igerilekua txiki geratu zenaren zaratak aspaldi danik zebiltzan herrian, eta esan beharra dago udalak hartu duen papera ere aldakorra izan dela. Hasiera batean, nahiz eta beraiek jakin gertatzen ari zena, isiltasuna nabarmendu zen, bazekiten eta honek ekarriko lukeen inbertsioa, eta ez zuten nahi saltsa horretan sartzea. Baina IDO plataformak ekarri zuen herri mugimenduaren ondorioz, ez zitzairen besterik geratu baiezkoa esatea baino.

Gainera, 2019ko maiatzean izanik udal hauteskundeak, guztiok dakigu nola mugitzen diren udal gobernuak. Gauzak horrela, beraiek ateratzen badira garaile, proiektua egiteko konpromezua ere hartu dute. Momentu hauetan tentu handiz jokatu behar dela uste dut udal gobernuarekin, baina horrelako konpromezuak hartzeak pauso handi bat ekartzen duelakoan nago...

Herritarroi eskuak ezin zaizkigu erori, lan zailena egin dugunean behintzat... beraz, jarrai dezagun hurrengo urteetan igerileku duin bat edukitzeko borrokan!

## 9 Bibliografia

- Ayuntamiento de Ciudad Rodrigo, Extremadura.* (2017).  
<https://www.ciudadrodrigo.es/ayuntamiento/category/destacados/> helbidetik eskuratua
- Azkoitia Udala.* (2018). <http://azkoitia.eus/eu/component/k2/itemlist/category/84> helbidetik eskuratua
- Anna Lucia Barker, J. T. (2014.eko Irailak). *Effectiveness of Aquatic Exercise for Musculoskeletal Conditions: A Meta-Analysis.* [https://www.archives-pmr.org/article/S0003-9993\(14\)00288-3/abstract](https://www.archives-pmr.org/article/S0003-9993(14)00288-3/abstract) helbidetik eskuratua
- Beggs S, F. Y.-B. (2013). *Cochrane Database of Systematic Reviews.* Swimming training for asthma in children and adolescents aged 18 years and under:  
<https://www.cochranelibrary.com/cdsr/doi/10.1002/14651858.CD009607.pub2/epdf/standard> helbidetik eskuratua
- Brault, M. W. (2012.eko Uztailak). *United States Census.* Americans With Disabilities: 2010: <https://www.census.gov/library/publications/2012/demo/p70-131.html> helbidetik eskuratua
- Beggs S, Foong YC, Le HCT, Noor D, Wood-Baker R, Walters (2013). *Cochrane Database of Systematic Reviews.* Swimming training for asthma in children and adolescents aged 18 years and under:  
<https://www.cochranelibrary.com/cdsr/doi/10.1002/14651858.CD009607.pub2/epdf/standard> helbidetik eskuratua
- Berria egunkaria.* (2017.eko Azaroa). <https://www.berria.eus/> helbidetik eskuratua
- Cantero-Villanueva, I. (2013). *American Congress of Rehabilitation Medicine.*  
<https://acrm.org/meetings/2013-annual-conference/> helbidetik eskuratua
- Diaz, J. (2010.eko Azaroak). El envejecimiento de la población española. *Investigación y Ciencia.* <https://apuntesdedemografia.com/2010/11/11/el-envejecimiento-de-la-poblacion-espanola/> helbidetik eskuratua
- Donostiako Udala.* (2018).  
<https://www.donostia.eus/ataria/es/web/kirolak/preziopublikoak/> helbidetik eskuratua
- Elkargunea Azkoitia.* (2018). <https://elkarguneazkoitia.eus/> helbidetik eskuratua
- Emprendedores.* (2017.eko Urtarrilak 24).  
<https://www.emprendedores.es/franquicias/a52238/cuanto-cuesta-montar-un-gimnasio-en-franquicia/> helbidetik eskuratua
- Euskalterm.* (2018). <http://www.euskadi.eus/euskalterm/> helbidetik eskuratua
- Eustat. (2016). *Eustat.*  
[http://www.eustat.eus/municipal/datos\\_estadisticos/azkoitia\\_c.html/](http://www.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/azkoitia_c.html/) helbidetik eskuratua

- Fleisher J., M. M., Tarsy D. (2017.eko Urriak). *UpToDate*. Nonpharmacologic management of Parkinson disease:  
<https://www.uptodate.com/contents/nonpharmacologic-management-of-parkinson-disease> helbidetik eskuratua
- Fomento, M. d. (2007.eko Apirilak 20). *Gobierno de España*.  
<https://www.fomento.gob.es/areas-de-actividad/aviacion-civil/legislacion-del-sector-aereo/normativa-basica-del-sector-aereo-estructura/usuarios/personas-con-movilidad-reducida-pmr/real-decreto-5052007-de-20-de-abril-por-el-que-se-aprueban-las-condiciones-> helbidetik eskuratua
- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala*. (2017). <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/gao> helbidetik eskuratua
- Gipuzkoako Igeriketa Federazioa*. (2018). <https://www.gif.eus/index.php/eu/> helbidetik eskuratua
- INE. (2016). *Instituto Nacional de Estadística*.  
<https://www.ine.es/jaxi/tabla.do?type=pcaxis&path=/t20/e301/fenom/a2017/l0/&file=23020.px> helbidetik eskuratua
- Kaplan, N. M. (2017). *Kaplan's Clinical Hypertension*.
- Kontsortzioa, A. K. (2017). Azpeitiko Kiroldegan bazkideturik dauden Azkoitiarrak. (U. Amenabar, Elkarrikeratzailea)
- Tripp, F., Karsten K. (2013.eko Urriak 31). *SAGE Journals*.  
<https://journals.sagepub.com/doi/abs/10.1177/0269215513504942> helbidetik eskuratua
- Waller, B. (2009.eko Urtarrilak 23). *US National Library of Medicine National Institutes of Health*. <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/19114433> helbidetik eskuratua

## 10 Eranskina

### Eranskina 1: Erabiltzaileen datuak

2017/09/18-2017/09/24							
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Goiza	111	62	91	79	77	76	57
Arratsaldea	181	175	185	140	103	13	
GUZTIRA	292	237	276	219	180	89	57
ASTEAN GUZTIRA:	1350						

Ikastaroak ez dira hasi

2017/09/25-2017/10/01							
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Goiza	93	74	88	87	81	232	124
Arratsaldea	189	199	212	170	126	75	
GUZTIRA	282	273	300	257	207	307	124
ASTEAN GUZTIRA:	1750						

Ikastaroak ez dira hasi

2017/10/02-2017/10/08							
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Goiza	207	133	185	157	140	90	71
Arratsaldea	154	216	206	179	162	19	
GUZTIRA	361	349	391	336	302	109	71
ASTEAN GUZTIRA:	1919						

2017/10/09-2017/10/15							
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Goiza	121	125	132	53	35	?	58
Arratsaldea	200	221	196	?	67	?	
GUZTIRA	321	346	328	53	102	0	58
ASTEAN GUZTIRA:	1208						

Aste honetan larunbatean zein ostegun arratsaldean ez zen daturik jaso

2017/10/16-2017/10/22							
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Goiza	143	145	152	148	142	100	116
Arratsaldea	182	200	195	171	144	53	
GUZTIRA	325	345	347	319	286	153	116
ASTEAN GUZTIRA:	1891						

2017/10/23-2017/10/29							
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Goiza	153	129	177	150	142	56	72
Arratsaldea	215	189	204	177	77	47	
GUZTIRA	368	318	381	327	219	103	72
ASTEAN GUZTIRA:	1788						

2017/10/30-2017/11/05							
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Goiza	149	140	156	143	143	79	174
Arratsaldea	164	181	?	148	133	54	
GUZTIRA	313	321	156	291	276	133	174
ASTEAN GUZTIRA:	1664						

2017/11/06-2017/11/12							
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Goiza	152	123	130	126	113	88	98
Arratsaldea	189	190	237	182	158	53	
GUZTIRA	341	313	367	308	271	141	98
ASTEAN GUZTIRA:	1839						

Iturria: Sorosleak harturiko datuak egunez egun